



**Josetxo URRUTIA**  
Euskadiko txapeldun ingude-jasotzen → 44

## Herrietako bestak

Arano, Elizondo, Elgorriaga eta Ituren

## BERA → 23

Oaia Peruarenaren Argi Jokoak ikusgai

## LEITZA → 34

Torra ixteko aginduaren kontra elkartasun keinuak

## BAZTAN → 37

Nafarroa Oinezeko kantubideoklipa aurkeztu dute

## URDAZUBI → 40

Alkerdiko lezean aurkikuntza berriak

**Naiara PERURENA** | Ikerlari leizarra Medikuntza Aplikatuko Ikerketa Zentroan (CIMA)



## BULARREKO MINBIZIAREN METASTASIA

«Ezinbestekoa da metastasia eragiten duten geneak identifikatu eta horien aurkako terapiak diseinatzea»

Doktoretza-tesian egin duen ikerketa lanarengatik saria eman diote Rotterdamen, Nazioarteko kongresu batean

**ELKARRIZKETA → 3**



**ERREPORTAJEA → 4-5**

**Artzaintzaren gazi-gozoek hiru artzain gazteren ikuspegitik**

Paola Charron (Sara), Julen Arburua (Lekaroz) eta Arkaitz Vicente (Sunbilla).



**Baztandarren Biltzarra uztailaren 19an ospatuko dute Elizondon.**

Aurtengo goiburua **Baztanen eskuara barra-barra**

# LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa egiterakoan CIESek Ttipi-Ttapa arekin zure iragarkiak eragin handiagoa du

## Nafarroa Garaiko mendialdean


hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



**ttipi-ttapa**

**TTIPI-TTAPA**  
25.000 irakurle

- D. NAVARRA 14.000 irakurle
- D. NOTICIAS 13.000 irakurle
- GARA 7.000 irakurle
- BERRIA 3.000 irakurle
- MARCA 3.000 irakurle
- EL PAIS 1.000 irakurle
- BESTE BATZUK 9.000 irakurle



Sexuaren arabera  
GIZONAK %43,10  
EMAKUMEAK %56,90

Adinaren arabera  
14-24 urte %11,80  
25-34 urte %15,50  
35-44 urte %26,50  
45-54 urte %16,50  
55-64 urte %14,30  
+ 64 urte %15,40

Ikasketen mailaren arabera  
IKASKETARIK GABE -----  
LEHEN IKASKETAK %13,10  
LANBIDE HEZIKETA %36,00  
BATXILERGOA %34,10  
UNIBERTSITATEA %16,80

Datu iturria:  
CIES 2015eko 1. neurketa

Farmazia ikasketak bukatu zituenetik, ikerketaren munduan buru-belarri dabil Naiara. 2011z gerotzik, doktoretza tesia osatzen ari da Nafarroako Unibertsitateko

Medikuntza Aplikatuko Ikerketa zentroan; metastasia eragin dezaketen geneak identifikatu nahian. Hamaika saiakeren ondotik, EPCR genea identifikatu eta ikerketa-lan horrekin

saria jaso du Rotterdamen egindako Nazioarteko kongresu batean. Hurrengo pausoa «genearen mekanismoa ikertu eta bere eragina murrizteko terapia bat diseinatzea da».

Naiara PERURENA AIZKORBE | Ikerlari leitzarra

# «Bularreko minbiziaren metastasia murrizteko bidea lantzen ari gara»


E. IRAOLA | LEITZA

## Zer da ikertu duzuen?

Gure laborategiaren helburua metastasia eragiten duten geneak identifikatzea da. Kontuan izan behar da metastasia dela minbiziaren ondorio diren heriotza gehien arduraduna. Horregatik, oso garrantzitsua da gene hauek identifikatzea. Guk egindako ikerketan ikusi dugu EPCR geneak bularreko minbiziaren garapena eta zelulak biriketara eta hezurretara zabaltzea bultzatzen duela. 286 pazienteen tumoreetan EPCR genearen adierazle maila aztertuta ikusi dugu, EPCR altua duten pazienteek pronostiko okerragoa dutela.

## Zer suposatzen du egindako aurkikuntzak?

Gure ikerketen azken helburua metastasia murrizteko terapia berriak diseinatzea da. Horretarako, lehenik metastasia nola sortzen den jakin behar da, diana terapeutikoak identifikatu behar dira. Metastasia murrizteko tratatu behar diren geneak zeintzuk diren jakin nahi dugu. Gure kasuan, EPCR izango litzateke diana terapeutikoa eta azken helburua gene honen efektua murrizteko terapia bat diseinatzea izanen litzateke. Hurrengo pausoa, beraz, mekanismoa ikertzea da. Izan ere, zelula norma-



ARGAZKIA: MANUEL CASTELLS/NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

Lau urte daramatza doktoretza tesia osatzen eta ongi bidean irailean bukatuko du.

letan, EPCRrek funtzio fisiologiko bat betetzen du, antikoagulatzailea da. Baina zelula tumoraletan agertzen denean, metastasia eragiten du. Terapiaren ikuspuntutik, interesgarriena izanen litzateke EPCRrek bi funtzio hauek mekanismo ezberdinen bidez eragitea. Horrela posible litzateke EPCRrek tumorean duen eragina murriztea, bere funtzio antikoagulatzailea aldatu gabe.

## Zein puntutan dago bularreko minbiziaren ikerketa?

Bularreko minbiziaren arazorik handiena metastasia da. Tumorea lokalizatuta dagoenean ia paziente guztiak sendatzen dira, baina beste or-

**IKERKETAREN PREMIA**  
«Minbizia beste organoetara zabaltzen denean pazienteen %25ak bakarrik gainditzen ditu ebakuntzaren ondorengo bost urteak. Horregatik, ezinbestekoa da metastasian garrantzitsuak diren geneak identifikatu eta horien aurkako terapia berriak diseinatzea».

ganoetara zabaltzen denean pazienteen %25k bakarrik gainditzen ditu ebakuntzaren ondorengo bost urteak. Hortaz, ezinbestekoa da metastasian garrantzitsuak diren geneak identifikatzea eta gene horien aurkako terapia berriak diseinatzea.

**Diagnostikatzen diren kasuak goraka doaz...**  
Bularreko minbizia emakumeetan gehien diagnostikatzen den minbizia da: 500.000 diagnostiko berri egiten dira urtero Europa mailan. Emakumeen artean heriotza gehienak eragiten dituen minbizia ere bada. Adituek diotenez, azken 20 urteetan kasu gehiago diagnostikatu

dira bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, mamografiak asintomatikoak diren kasuak diagnostikatzea ahalbidetu dute eta bestetik, bizimoduarekin erlazionatutako faktore ezberdinek minbizia kasu gehiago egotea eragiten dute: haur gutxiago izateak, lehenengo haurra adin gehiagorekin izateak, terapia hormonalek, obesitateak... Hala ere, bularreko minbiziaren ondorio diren heriotzak murriztu egin dira tratamenduan egon diren aurrerakuntzei esker. Hori bai, oraindik asko dago hobetzeko.

## Nazioarteko sariak zer suposatzen du?

Lana nazioarteko kongresu batean aurkezteko aukera izan nuen eta hori oso garrantzitsua da emaitzak beste ikerlariei helarazteko eta ikerketa talde ezberdinen arteko harremana sortzeko. Oso positiboa izaten da ikerketarentzat arlo ezberdineko taldeek parte hartzea eta bereziki medikuen eta laborategiko ikerlarien arteko elkarlana bultzatzea. Pertsonalki, lau urte hauetan egindako esfortzu handiaren ordaina da. Ikerketa arloan, gehienetan lan asko egiten da emaitzarik jaso gabe. Baina emaitza positibo bat lortzen denean, aurretik egindako esfortzu guztia konpentsatzen du eta asko betetzen zaitu.

GIZARTEA → SUNBILLA, LEKAROZ ETA SARAN

# Ardien zaindari gazteak

Artzaintzatik bizi diren hiru gazteren ikuspegia

## E. IRAOLA

Larre berdeak dira beraien lantokia. Artaldearen bueltan pasatzen dituzte makina bat ordu. Gazteak dira hirurak; 32, 26 eta 23 urte dituzte hurrenez hurren. Artzain dabilta, lanbidea maite dutelako eta laborantzari lotuta irudikatzen dute euren etorkizuna ere.

Sunbillako Arkaitz Vicentekin, Sarako Paola Charronekin eta Lekarozko Julen Arburua-

rekin bildu da TTIPI-TTAPA. Abiapuntu desberdina izan du bakoitzak eta lanbidea bizitzeko moduarekin ere halaxe gertatzen zaie.

Arkaitzek duela gutxi erabaki zuen erabat artzaintzatik bizi nahi duela. Artaldea handitu eta familiako gaztandegirako ahalik eta esne gehien etxean bertan ekoiztea da bere helburuetako bat.

Julen Arburuak alderantzizko pausoa eman

du. Gurasoek betidanik izan dute artaldea etxean eta orain gaztandegiari bultzada ematea erabaki du.

Paolak, berriz, bere artaldea zaindu beharrean nagusiarena zaintzen du. Umetan, Erratzuko Biurreta etxaldean aitaxi eta amatxirekin ikasi zuen ardiak zaindu eta jezten eta ezagutza horrek eman zion lanpostua.

Lanbide gogorra dela aitortzen dute hirurak, baina ilusiorik ez zaie falta.

Oztopoen gainetik, artzain izan nahi dute.



## Arkaitz VICENTE | SUNBILLA

### «Lan lotua da baina aldi berean askatasuna ematen dizu, gozotik gehiago du gazitik baino»

Ttikitatik ikusi izan ditu ardiak etxe inguruan eta «betidanik gustatu izan zaizkit eta azken urteetan gehiago». Interes horrek bultzatuta, Oñatiko Artzain eskolara joan eta «bertan erabaki nuen erabat honetatik bizi nahi nuela». Erran eta egin, «Lizun gaztandegia du familiak eta esnea kanpotik erosi ohi dute. Nire idea izan da etxean geneukan artalde txiki hori handitu eta etxetik gehiago produzitzea».

«Pixkanaka pixkanaka ikasiz eta ikusiz joatea» izan da bere asmoa. Arriskatua izan litekeela badaki baina «horretan saiatu eta ea zer ateratzen den» erantzun digu ilusioz. Gainera, ez da itsu itsuan ari, «gaztandegia hor dago, merkatua du eta etxetik gehiago produzitzea etekin gehiago ateratzeko modua da».

Artzantza munduan hutsetik hastea «zaila da, nik esango nuke orain dela urte batzuk agian baietz errexago egiten zela, gaur egun zailagoa da». Eta lanbidetik bizimodua ateratzea ere nekeza dela aipatu digu «artzantzas bakarrik bizitzea zaila da erosi beharreko lehengaiak garesti daude eta azken produktuak, nahiz eta jendeari garesti dagoela irudituz, ez du konpentsatzen. Egiten den lan guztia kontuan izanda, bokazionala behar du izan, pasatzen dituzun ordu guztiak kontuan hartuta ez da errentagarria izaten». Horregatik ezinbertzekoa da, «gauzak buruarekin egin, pentsatu eta lana egitea, horrela bakarrik bizi zaitezke artzaintzatik».

Ardi latxarekin ibiltzen dira eta ardi mota honek urtaroka zikloak dituen bezala, lan karga banatu egiten da «badauzka sei hilabete nahiko lotuak direnak, produkzio



handikoak eta gero beste sei produkzio tikiagokoak, ardia mendian dagoenean». Baina orduan ere ezin geldirik egon «belarrak egiteko egoten dira eta». Nahiko lan lotua denez, «gustatu behar zaizu hor egoteko. Hemen ez dago ez igande ez larunbatik hilabete aunitzetan». Hala ere, «gozotik gehiago ikusten diot gazitik baino. Gogoz nago eta honetan segi nahi dut».

Gogorrena «irabazia ez dela sekula izaten lanaren parekoa. Lan aunitz egin behar da etekin pixka bat ateratzeko». Gozoena berriz, «lan lotua dela baina aldi berean askatasuna ematen dizula. Zure artaldea da, zuk manejatzen duzu, zure aurrera ibiltzen zara... gustora zaude, gustoko tokian, naturan bertan».

Formakuntzari ere garrantzia handia ematen dio Arkaitzek, «gauzak dezente eboluzionatu dute. Garai batean artzain izateko zaharrago batekin ikasten zen. Artzaina etxean geratzen zen senidea zen, ez zuena ikasten. Gaur egun arrotz diferentea da. Bizitza artzaintzatik aterata nahi baduzu arlo aunitz jorratu behar dira: elikadura, produkzioa... formatu eta ikastaroak egitea beharrezkoa da, azken teknikak ezagutzeko».

## FORMAKUNTZA

«Garai batean artzain izaten zaharrago batekin ikasten zen. Gaur egun arrotz diferentea da. Arlo aunitz jorratu behar dira. Formatu eta ikastaroak egitea beharrezkoa da azken teknikak ezagutzeko»

Julen ARBURUA | LEKAROZ

## «Artzaintzan etorkizuna bada; ez da bertze edozein lan baino gogorragoa, lotuagoa bai»

Lekarozko Kortariko Bordaren inguruan umetatik ikusi izan ditu Julenek ardiak, behiekin batera hori izan baita familiaren sostengua. Duela gutxi ordea, gasnategia indartzeko erronkari heldu diote, «ikusten zen ardietatik ateratzen zen etekina geroz eta murriztagoa zela. Beste bide batzuk landu beharra daudela ikusi genuen eta pausoa ematea erabaki genuen».

Artzain eskolan ibilia da Julen ere, «lehendik banekien ardien inguruan zerbait, baina, gasnak egiten han ikasi dut inguruko bertze gasnategi batzuekin batera. Gurean amatxik egiten zuen gasna baina beste modu batera, orain teknika berriak erabiltzen dira». Eskolan gustora ibili zela dio eta aukera polita eskaintzen duela ere iruditzen zaio «deus ez dakienari artzain izateko aukera ematen diolako».

Betidanik gustatu izan zaio artzain mundua eta horretan segitzeko aukera izatea «ia ia pribilegio bat» dela uste du, «familiar aukera eduki ez banu, hutsetik hastea ia ezinezkoa izanen litzateke». Lanbidearen alderdirik makurrena, «ofizioa behar bezala ez dela baloratzen da» bere ustetan, «jendea bildotsetaz neguan gogoratzen da, eguberri garaian eta prezioaz kezatzeko izaten da normalean. Ez dira ohartzen horren atzean dagoen lanaz, lehengaiak duten pre-

### BIDE BERRIAK

**«Beste bide batzuk landu behar zirela ikusi genuen, ardietatik ateratzen den etekina geroz eta murriztagoa baita. Gasnategia bultzatzea erabaki genuen orduan».**



zioaz eta gure belai eta mendiak garbi kontzeak duen garrantziaz». Lanaldia luzea izan ohi da artzainena negu eta udaberri garaian, «goizean lana noiz hasten den jakin bai, baina noiz bukatuko den ez baita jakiten. Goizean ardiak jetzi, jana eman, gazta egin eta arratsen berriz artalde lana egitea tokatzen da». Sakrifizioak sakrifizio, «gustoko lana denez, ez da hain zaila». Gainera moldatzen da beretzat tartetxoak hartzeko «parrandatik bueltan, ardiak jeztera joatea ere tokatzen da batzuetan baina gurasoak ondoan izanda oso ongi moldatzen naiz».

Geroaz galdetuta «artzaintzan etorkizuna bada, ez da bertze edozein lan baino gogorragoa, lotuagoa bai». Afizios ardiak dituztenak aunitz direla dio baina ofizios artzain direnak ez, «jendeak lantegian egiten du lan eta ardi batzuk izaten ditu kapritxo», izan ere, «artzaintzatik bakarrik bizitzeko, gustu handia behar du».

Paola CHARRON | SARAN BIZI DEN LEUNZARRA

## «Nire artaldea izateko aukera banu, manera tradizionalen, mendiko artzain izan nahi nuke»

Kasualitate hutsez edo patuak hala nahita, hasi zen artzain Paola «ez nuen laborantza eskolarik egin, ez ezer ildo hortarik. Baina nagusiaren anaia ezagutu nuen eta berak erran zidan xekatzan zutela jendea». 4.000 ardiko tropa dute lan egiten duen lantokian, «modu produktistan lan egin arren, artzain bat behar zuten bazuena begia ardietan eta bereziki bazekiena ardiak jezten». Eta Paolak ongi zekien horretan «Erratzun, Bidegoarrieta etxaldean, familia daukat eta han hasi nintzen txikidanik ardiak jezten eta ardiekin mendira joaten».

Artzain ibiltzen dela jendeari errandakoan, «harritu» egiten direla dio, eta artzaintza hurbiletik ezagutzen ez duenak «artzainen ikuspuntu erromantikoa izaten du, gainera. Artzaina bere artaldeari begira, larrean sies-ta ederra botaz bere txakurrekin... baina galde egiten dizutelarik noiz ernatzen zaren, ideiaz aldatzen dute».

Artaldea berea ez denez, «ez naiz ohiko artzain. Badut bizimodu aski normala. Hartzen ahal ditut opor egunak adibidez». Gainera, besteren konturako langilea izanda «bertze segurtasun bat duzu. Ez baldin baduzu ezer zurea eta plantatzen bazara artzain, oso inbertsio handia egin behar duzu

### LAN BANAKETA

**«Ez baldin baduzu ezer zurea eta plantatzen bazara artzain, oso inbertsio handia egin behar duzu tropa osatzeko, bazka erosteko, mendiaren saria ordaintzeko...»**



tropa osatzeko, bazka erosteko, mendiaren saria ordaintzeko... eta laguntza gutti daude». Hutsetik edo oinarririk gabe hastea «ez dut posible ikusten. Ez da berdin etxean ardiak izanda hastea». Berak, argi du, «artzain bidea segituko nuke izanen bagenu. Mameruski ez zen horrela izan. Nire aitaxi zenak, bazuen laborantza baina minbiziarekin hil zen goizik eta kabala eta laborantza guztia utzi zuen. Nere ama eta anai-arebek ez zuten bide hura segitu dena amaitu zen».

Etorkizunaz galdetuta, erantzun du «ez dakit, gauza aunitzek baldintzatzen dutelako. Artzainen arazoa da, lehen ardiak jeitzen zenituen, esnea edo gasna saldu eta bazkaren prezioarekin, gelditzen zitzaizula soberakin bat ongi bizitzeko. Orain bazka garesti denez, ardiak ia debalde saltzen dira. Bazkaren prezioek eta nekazaritza politikak erabakiko dute artzaintzaren geroa».



**Nire txanda**  
Joseba URROTZ

## Lotsa

**H**itz hau gaitzat hartu nahi, eta hara hasi orduko non ohartu naizen lotsa eta losak badutela elkarrekin harremana. Alegia, lotsa, losa astuna izan daiteke, hitz hau hagitz euskalduna ezpada ere.

Gure ekintzek berteengan duten eraginaz konturatu, eta mina eragin badugu, damu edo egoneza sentitzea ona omen da, barkamena eskatzera garamatzalako; baina sentimendu hori gaizki ulertu, eta muturrera eramatea da, lotsa eta herabetasun neurritz kanpokoa.

Herabea edo lotsa sentitzea mesede tiki bat eskatzeko, jende ezezagunei zerbait galdetu edo haien ondotik pasatzeko, sekulako zama da, bizia zailtzen duena. Aunitzetan benetako nekea, nahigabea eta ezinbizia nabaritzearaino, mundu hontan izate hutsaz lotsa sentitzen badugu...

Gehienok aritzen gara berteendako erraka, maiz, elkar larrutzen; konturatzen naiz ez dela gauza sanoa, ez genuke zertan gure buruaz lotsatu beharrik ezta inor larrutu beharrik. Gure buruaz zenbat eta gehigo lotsatu, orduan eta gehiago aritzen gara berteendako. Sekulako lana dugu egiteko.


## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Ni-ni belaunaldiaz

**E**z lan eta ez ikasi, ni eta ni bertzerik buruan ez duten *ni-ni* gazteei buruzko telebista saioak ikusteaz aspertua nago. Karrikan ikusten ditudan gazteak bertzelakoak izan ohi dira, han edo hemen etorkizun hobe baten bila ari diren ikasleak, hilabete bukaerara nola edo hala ailegatu nahi duten langileak, lan bila ari diren langabetuak... Ale honetako elkarriketa eta erreportajea horren islada.

## Nabarmentzekoak



Aritz ZUBIRI  
Bigarren txapela 3 hilabetez

Ansa II.rekin bikote eginenez erremonteko promozio txapelketa irabazi du atzelari goizueta. Martxoan berte txapelketa ere irabazi zuela kontuan hartuz, urte ederra darama.



Josetxo URRUTIA  
Ingude altxatzen txapeldun

Ekainaren 26an Diman jokatu zen Euskadiko ingude-jasotze txapelketa txapeldun suertatu zen lehen aldiz, 86 jasaldirekin. Ingudearekin ez ezik, harriekin ere aritzen da leitzarra.



Jose Luis LEGARRA  
Arkupeak elkarteko buru

Zuzendaritza batzorde berria aukeratu du Arkupeak erretiratuen elkarteak eta Jose Luis Legarra da presidente berria, azken lau urteetan aritu den Pedro Bañaresen orde.

## Atzera begira → 2005-VI-14 / TTIPI-TTAPA 402. zk



## Bortzirietako gazteek 5ziri kazeta aurkeztu zuten

Duela hamar urte, Bortzirietako gazteek bultzatutako 5ziri kazetaren lehen alea aurkeztu ziguten Nekane Maia arantzarrak eta Itsaso Goñi beratarrak. Euskara Mankomunitatearen laguntza izan zuten egitasmoa gauzatzeko eta beraien hitzetan, «Bortzirietako gazteek elkartu eta euskara sustatzeko sortu dugu 5ziri». 800 ale egin zituzten eta etxetara banatu zituzten gehienak eta bakar batzuk ostatuetan utzi. «Edozeinek idazten ahal du eta edozer gauza kontatu, iritzia eman... aldizkari irekia da eta hartzen dugun guztiak izanen du lekua» aipatu ziguten. Zoritzarrez, aldizkariak ez du segidarik izan.

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leizta	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua

**MEKNA**  
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



## Kolaborazioak

### Gezurra agerian

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

**E**kainaren 17an ikusi nuen telebista batean, Nafarroako Parlamentuaren eratzeta eta gehiena euskara hutsez izan zen, ia-ia parlamentari erdiek euskaraz zin egin edota hitz eman zuten, Parlamentuko Lehendakari berria -Ainhoa Aznarez- euskalduna da, Nafarroako hurrengo Lehendakaria ere euskalduna izan da, non ez den gertatzen egundoko ustekabea behintzat, hogeitaka parlamentari euskaldunak dira, baita UPNko bi ere, eta haietako batek gainera -Cristina Altunak- esan zuen, asmoa duela euskara erabiltzeko naturaltasunez (ea egia den), eta abar, eta abar.

Bai, ekainaren 17an berebiziko aldaketa ikusi genuen Nafarroako Parlamentuan, ez sinesteko modukoa izan zen hasiera batean, ikusita, gehien entzuten zen hizkuntza euskara zela. Bitartean, Yolanda Barcinak berak eta bere kide gehienek hantxe egon behar izan zuten, isil-isilik, entzungailua belarran jarrita, txintik ere protestatu gabe, azken udal eta foru hauteskundeetan, nafarren gehienek horrela erabaki zutelako demokratikoki. Eta 13an, Iruñeko Udalaren eratzeta eta Nafarroako gainerako udalen eratzeta ikusi ez banituen ere, badakit haietako askotan ere antzeko egoerak gertatu eta errepikatuko zirela. Eta hori guztia normaltasunik handienarekin, demokraziaren biderik arruntenen barruan, lurrikararik izan gabe, hondamendirik gertatu gabe, tsunamirik pairatu gabe.

Bai, jaun-andreak, aurten ere, aurreko urteetan bezalatsu, UPNko buruzagiak saiatu dira beldurra eta izua barreiatzen Nafarroako gizartearengan, hauteskunde kanpaina osoan, adierazteko beraiek gabe, Nafarroako gizartearen anabasa eta nahaspila nagusituko zirela. Gogoratzen al duzue "euskaldunak etorriko dira!" delako esaldi ospetsu, gezurti eta pozoitsua? Baina, askoren pozerako, ordea, ikusten ari gara denok genekiena, baita UPNkoek ere, alegia, euskaldunak inondik ere etorri gabe, hemen ginela duela milaka urtez geroztik. Bestela, nondik atera dira bapatean, Nafarroan, hainbeste zinegotzi, alkate jaun-andre, idazkari, parlamentari, lehendakari, eta abar, euskaldun, inondik ere erosi, inportatu edota ekarri gabe? Hots, Nafarroan, orain ikusten ari garen hainbeste hautetsi eta kargudun euskaldun, hemen goak dira; Nafarroakoak. Inork ez ditu beste inondik ere ekarri behar izan, ez Euskal Autonomia Erkidegotik, ez Ipar Euskal Herrietik, ez euskal diasporatik, ez eta munduko beste inondik ere; betidanik hementxe bizi izan direlako.

Hauxe izan da Barcina eta bere jendearen gezur ikaragarri handia, oraintxe muturraren aurrean erortzen eta desegiten ari zaiena, eta, jada, ez diete balio ETArean eta gainerakoien terrorismo aitzakia merkeek.

Oraintxe nahi nukeena da, 17an, Nafarroako Parlamentuan ikusi genuen euskararen erabilpena, ez izatea egun bateko antzeppen eder bat, baizik eta eguneroko funtzionamendu normala, han, eta gainerako udal euskaldun guztietan gutxienez, alegia, ez gelditzea itxurakeria hutsean.

### Lesakako oroitzapenak (III)

Esteban IRUSTA MALLEA

**L**esaka ezagutzeko aukera izan dugunok ez dugu inoiz ahaztuko bertan igarotako denbora. Oñatitik, bisitan etortzen ziren lagunentzat ere, Lesaka herri interesgarria zen; baita bere inguruko herri eta mendiak, Iparraldea barne. Eskolako neska-mutilekin ere, oinez, ibilaldiak egiten genituen inguruko mendi eta toki interesgarrietara. Luzeena Irunera egiten genuena zen, Agina eta San Anton barne. Garai haietan, geure inguruko tokiak asko apreziatzen genituen. Frain tontorrari buruz, gogoratu nahi dut lesakar batek, aspaldi esandakoa: Bere benetako izena "Irain" zela. Idazkari baten errua, omen, izan zuen aldaketaren arrazoia. Horrela ote? Ez litzateke harrizkoa izango; zoritxarrez, horrelako kasuak gehiegi errepikatu dira, Euskal Herriaren historian.

Politikan ere, aldaketa handiak izan dituzten kasu asko ezagutzen ditugu. Horietako bat Manuel Aznar Alzugarai etxalartarra (1893-1975) izan zen. Haseran, PNVren jarraitzaile sutsua; gero errepublikanoa; ondoren, monarkikoa eta, azkenik, frankista. Horrela, nola ez, etsaiak eta lagunak alderdi guztietan izan zituen. Dena den, politikako gorabeheren gainetik, kazetari oso ona omen zen.

Aldaketak, musika mailan ere, ezagunak dira. Ni, Ez dok Amairuren hasierako sasoikoa naiz. Bere kideak, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta abar gure etxeko ikasgela baten egon ziren, German Goienetxek gonbidatuta, beraien ibilbide publikoa hasi aurretik.

Eta, zer esan eliza inguruan izan diren aldaketei buruz. Nire denboran, Lesakan, beste herrietan bezala, igande eta jai egunetan elizak bete egiten ziren. D. Agapito Ibarra, D. Jabier Sanzberro eta D. Jose Maria Azpiroz erretoren denborak ziren. Horiek eta ondorengoak ezagutu dituen D. Juan Ayastui da. 1955tik gaurdaino hor jarraitzen du. Jaiotzez oñatiarra izan arren, honenbestez, guztiz lesakar bihurtua. Beste guztiok, arrazoi desberdinetatik, kanpora joan ginen. Nere kasuan, salto handia izan zen: Lesakatik Ameriketara; konkretuki, Ekuadorreko kapitala den Quitora, Nuena York eta Caracas-tik pasa ondoren. Ez zen bisita turistikoa izan; Jesuiten unibertsitatean ikasketak egitera baizik. Aldaketa handiak izan ziren, altura, klima... Desberdintasun hauei, jendearen bizimodu eta mentalitate desberdina gehitu behar zaie: mundu berri bat izan zen lehenbizikoz joan ginenontzat. Gainera, unibertsitatean, irakasle bikainak izateko sortea izan genuen. Argentinako diktaduratik iheska, Ekuadorrera etorriak ziren. Beraien klaseetan disfrutatzen egoten ginen, nahiz eta gaiak filosofiakoak izan. Ikasketen helburua Lizentziatura lortzea zen, eta ondoren Espainian baliokidetu. Urte haietan, Euskal Herrian, herri guztietan, ikastolak sortzen ari ziren, eta Ameriketara joan aurretik, urte oso bat, ikastaro bat eman nuen, larunbatetan Donostiako Jesuiten unibertsitatean, "Txilardegi", Patxi Altuna, J.A.Mujika, eta Patxi Goenagaren euskarazko klaseak hartzen. Helburua, euskara maila hobetzeaz gain, gai desberdinak euskaraz irakastea eta behar ziren tituluak lortzea zen. Ondoren, Oñatira bidali ninduten, eta bertako ikastolan lan egin dut, jubilatuta arte.

## Irakurleak mintzo



### Bota bertsoa

Jontxu URROSOLO ELGORRIAGA (Lesaka) • Doinua: Aita izana  
Baztan-Bidasoaldeko XXVIII. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (11-14 urte)

## Arroparen garrantzia

Urtaro den(e)tan udan bezala  
arropak hainbat garrantzi  
neguan ere txano lodia  
eta bufanda ez ahantzi  
ez baita berdin Rusia, Brasil,  
Portugal edota Frantzi  
nahiz ta bakoitzak beti dotore  
eta fin nahi duen jantzi  
nahiago dut nik goxo ibili  
ta ez hainbat elegantzi.

Mundu honetan hainbat desgrazi  
mila gauza ikusteko  
Mundu erdiak ez du arropik  
soinean eramateko  
bertze aldean diru gehiegi  
ia dena erosteko  
toki berean jaiokak gara  
baina ez gara pareko  
diru guztia ongi banatuz  
biziko ginen hobeto.

## Elkarrizan

Marian BIURRARENA  
(Elkarrizan Boluntario  
Taldea)

Pertsona batek gaur egun nekez egin ditzakeen gauzetako bat denbora "bere bururari" eskaintzea da. Lanak, familiak eta lagunek, gure denbora guztia betetzen dute, presaka bizi garen munduan. Gainera, ba al dugu "ezezagunei" eskaintzeko denborarik? Arrazoi horregatik agian, boluntario gehienak erretiroa hartuta edo seme-alabak jada hazi dituzten etxekoandreak gara... baina "harrobi" polit bat izugarri gustatuko litzaike osatzea.

Beste jarduera batzuen artean, Lesakan, asteartero arratsaldean bi orduko paseotxo bat ematen dugu herrian Zahar Etxeko zaharrekina eta batzuetan euripean ere irten gara. Nola gozatzen duten adeitsuki erretirodunen tabernan eskaintzen dizkiguten kafe eta pastelxoekin. Beraien begiradak ikustea hain ederra da... bihotzez eskerrik asko! Segur aski behin baino gehiagotan ikusi gaituzu gurpil-aulkia bultzatzen irri eta elkarrizketen artean! Agurtu zaitugula konbentzita nago... Batzuetan Zahar etxean bertan galditzen gara, kantari, bideo bat ikusten edo solasean!

Lagun bihurtzen den "ezezagun" horri astero ordu batzuk eskaintzeak, norberaren denboratik tarte bat eskaintzea suposatzen du, baina asko da elkartruke horretatik lortzen duguna; partekatutako esker onetik eta une txikien poztasunetik pertsona bezala hazten baikara. Askok esango lukete: "balio egin behar dela honeta-

rako, berezko gaitasun bat dela..." Irribarre bat, hitz adeitsu bat eta batez ere entzutea nahikoa da ordea, bakardadea lagun txarrenetakoa delako eta guk betetzen ditugun hutsuneak betetzeko belarri garbiak izatearekin nahikoa da...

Hitz hauen bidez, zuri irakurle, egun batean guregana hurbiltzera gonbidatu nahi zaitugu, gurekin paseatzera etortzera, gurekin solastera... Ea animatzen zaren, jende zoriontsua eta irribarre bat izanen dituzu esperoan. Elkarrizan boluntario taldean geroz eta gehiago izatea da gure helburua, beren etxetan bakarrik daudenek Elkarrizaneko lagun baten bisita izateko aukera eduki ahal dezaten.

Ez dugu inoiz eskatzen denbora jakin bateko ardura edo konpromisorik. Norberaren interesen eta aukeren arabera izanen da partekatutako duen denbora, boluntarioak barrenak hala eskatuta, bihotzez partekartzen duelako denbora. Gogoratu denbora balio dugula boluntario izateko, borondate ona nahikoa da horretarako. Izan ere, laguntza profesionala izateaz gain, lagunak ere zurekin daude eduki dezakezun edozein zalantza argitzeko. "Nahi izatea boterea da" horregatik nahi baduzu eta denbora baldin baduzu anima zaiten!

Bukatzeko, boluntarioei eskerrak eman nahi dizkiegu, beren denbora eta eskuzabaltasunari esker guztia posible delako. Abiapuntu ttiketarik hasita, gauza haundiak sortzeko gai baitira. Asteartero batera egiten dugun paseoan, ibilbidea errepikatu arren, beti topatzen ditugula-

ko, kolore eta irrifar berriak, baita agurtzen gaituzten aurpegi berriak ere.

Gaztelarako klaseak ematen ari direnei eta eskolako umeei klase partikularrak ematen dizkietenei ere mila esker. Handia delako ematen duten laguntza.

Gure aldetik besterik ez, besta zoriontsuak opa dizkizugu. Karriketan gurekin topo egiten baduzu agurtu gaitzazu. Eta jubilatuen tabernan kafesne batera gonbidatu nahi bagaituzu, askozaz hobe! Zain izanen gaituzu :-)

## Plazara dantzara

Aitziber ZAPIAIN INTXAUSTI  
(Plazara Dantzara  
ekimenaren izenean)

Udaberria pasatu eta uda ailegatu da, Baztan go herriko plazetan jada hasiak gara dantzan. Irurita, Berroeta, Almandoz, Arizkun eta Erratzuko bestak akitu dira, eta heldu dira hemendik aitzinerat bertze parrasta bat. Plazara Dantzara herri ekimenetik berri ere herriko bestetan parte hartzeko deia egiten dugu. Emakume eta

gizon, mutil eta neska, zahar eta gazte, bertako zein urruneko, guztiei dei egiten diegu bazterketarik gabeko bestetan parte hartzera. Eta batez ere, bestaren parte diren Mutildantzetan.

Mendeetan gure herriko besta zein bertze hainbat ekitaldi publikotan emakumeak bigarren mailako herritar gisa tratatu izan dira. Denerarik aditu eta jasan behar izan dugu gizonetako zituzten aukera berdinak eduki ahal izateko. Adibide aunitz daude eta segur aski, zoritxarrez, segituko dira izaten (inauteak, oilar dantza, zikiro jateak, kinto bestak, Mutildantzak,...) Tradizioaren ize-nean irainak eta eraso larriak pairatu ditugu emakumeon zapalketa bulkatu eta justifikatu nahi izan duten horiengandik.

Hala ere, Plazara Dantzaratik positiboki ikusten dugu etorkizuna, eta kontent erraten ahal dugu gaur egun Baztanen Mutildantza dantzatzen den herrietan, dantza parekidea dantzatzen dela. Baztan go herriek, besta batzordeek eta Plazara Dantzararak berak, argi utzi dugu eremu publikoa eta

dantza pribatizatzea ez dela onartuko. Berriz ere argumenturik gabe gelditu dira Mutildantza partentatzeko eskubidea dutela uste duten horiek. Gero eta jende gehiagok egiten du bazterketarik gabeko besten alde, eta hori, berez, guztion garapena da.

Bertze aldetik, argi dugu borrokan eta dantzan segitu behar dugula, oraindik lan aunitz da goelako egiteko. Oraindik badaudelako dantza parekideak dantza zera ausartzen ez diren herriak. Herriko plazak herriaren ispilu bihurtzen dira herriko bestetan. Horregatik ematen zaio horrelako garrantzi handia plazan egiten denari. Hurrengo belaunaldiei zer erakutsi nahi diegun pentsatu behar dugu plazarat ateratzerakoan. Nola hazi eta hezi nahi ditugu neska mutilak? Elkarrekin modu askean harremantzen direnak ala batek bertzeak baino eskubide gehiago dutela uste dutenak? Uste dugu erantzunarekin ados egonen garela. Hortaz, aurten ere Baztanen eremu publikoetan dantzatzen diren Mutildantza guztietan ikusiko dugu elkar, PLAZARA DANTZARA!



**Prentsatik bildutakoak**



«Jendeak erraten dizu: 'Erdaraz pentsatzen etorri naiz, baina orain euskaraz pentsatzen dut'. Jendea harritzen da bere buruarekin». «Esperientzia polita da; kanpotik ikusita, inbidia pixka bat ematen dit. Euskaldun berria banintz, barne-tegi bat eginen nuke». «Barnetegiak aunitz eman dio Arantzari, eta bertzela etorriko ez litzatekeen jendea etorri da».

**Xabi ZUGARRAMURDI**  
Arantzako Aterpekoa  
BERRIA 2015.06.23



«Gizonek oso ondo hartzen dute. Nire anaiaren alabak ere jotzen ditu joareak eta asko animatzen dugu. Agian igande gauean afaltzen ari gara eta 'bihar zer?' beste animo batez esaten digute, eta guk nahi dugu... Orduan, ez batere arazorik. Orain neska eta mutilak denak batean ibiltzen dira. Inork ez du erraten 'zu neska zara eta ez zara aterako'».

**Juli LOIARTE**  
Zubietako joalduna  
GAUR 8 2015.06.27

**11 galdera labur**

**Nor da Karmentxu Olazar?**

Ttikitatik Hilarionen lan egin duen adineko emakumea. Donezteben sortu eta lau urtekin, gurasoak urte berean hil zirenez, Elgorriagara etorri eta ordutik hemen ari naiz.

**Malerrekako egunean omenaldia egin zizuten, zer sentitu zenuen?**

Poza, hainbertze urtez aitzina ateratzeko lanean ari ondolik... Lotsa ere bai, baina ederra izan zen.

**Nola bizi dituzu bestak barraren bertze aldetik?**

Oso pozik. Ostatua genuenean jende asko etortzen zen. Orain guttiagora doaz bestak, baina... beti ilusioz!

**Zenbat urte daramatzazu jate-txean lanean?**

Lau urtekin etorri eta ohatzeak egiten paratu zidaten; lautan



**Karmentxu OLAZAR → Elgorriagako Hilarioneko etxeko-andrea**

hogeita bat ditut eta oraindik etortzen naiz.

**Zerbitzatzea edo sukaldatzea nahiago?**

Gaztetan zerbitzaria nintzen, gero sukaldari sartu nintzen eta sukaldaritza nahiago!

**Bezereen ohiturak aldatu al dira bertan hasi zinenetik?**

Bai, aunitz. Lehen ez genuen menurik. Ematen zeniona jaten zuten. Gero "hau ez dugu eskatu"... hasi ziren. Semeak sukaldaritza ikasi eta hemen sartu zelarrik, kartarekin hasi ginen.

**Zein da Karmentxuren espezialitatea sukaldean?**

Sukaldatzeko den-dena gustatzen zait, nere bokazioa da.

**Zein da sukaldari ona izateko sekretua?**

Sentituz lan egitea. Niretzat sukaldatzea jolastea da.

**Familiako bazkarietan sukaldatzea tokatzen zaizu?**

Semea aritzen da gehiago baina bien artean egiten dugu.

**Somatu al duzue krisiaren eragina?**

Ez askorik. Bertako aunitz etortzen da eta hori seinale ona da.

**Amets bat?**

Urte askoz osasuna izatea.

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**ZUBIONDO**  
*Jatetxea*  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tlf: 948 625 474

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaila jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**MARITX**  
Legia, 23-BERA  
T. (0034) 636 617 450  
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

**EDARIAK**  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidaso, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera - Nafarroa  
t. 948 631 106  
948 630 967  
w. www.zalain.info  
e. sainz.amaia@gmail.com

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Enaut & Nekane  
Kanttonberri 12 • BERA  
Tfno/Fax: 948 630 018

## GIZARTEA

ARKUPEAK ELKARTEA → PEDRO BAÑARES ORDEZKATUKO DU

# Jose Luis Legarra da Arkupeak elkarteko presidente berria

Elkartek modu egokian funtzionatzeko lau batzorde osatu dituzte

## Fernando ETXEBERRIA

Ekainaren 17an bildu zen Arkupeak elkarteko delegatuen batzorra eta zuzendaritza batzorde berria izendatu zuen. Jose Luis Legarra Iriarte izanen da presidente berria, lau urtez kargua bete duen Pedro Bañaresen ordezkari.

Zuzendaritza batzordeko bertze postuei dagokionez, Rosa Maria Bertiz Iriarte izanen da presidente ordea, Fernando Etxeberria Mariezurrena idazkaria, Juan Isaac Alzugarai Martiarena idazkari ordea eta Maria Eugenia Arozena Sanzberro diruzaina. M<sup>a</sup> Rosa Mendiburu, Gemma Gamio, Pakita Mikelarena eta Jose Ignacio Telletxea izanen dira bokalak eta M<sup>a</sup> Lourdes Erbiti ordezkaria.

Zuzendaritza berria ekainaren 25ean bildu zen eta lau batzorde osatu zituen, elkarteak modu egokian funtzionatzeko dezan: ekonomia, ikastaro eta solasaldiak, bidaiak eta mendia. Fernando Etxeberria izanen da komunikabideekin harremanean jartzeko arduraduna.

## Bigarren seihiakoa

Urtea bukatu arte eginen diren bidaiak eta ikastaroak azaltzen dituen boletina argitaratu



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzorde berria. Legarra, zutik erdian dagoena da.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

## Senda Vivara bixita

Arkupeak elkarteko 126 bazkide Senda Viva bisitatzerara joan ziren ekainaren 18an. Hiru taldetan banaturik, gidari baten laguntza izan zuten eremu ezberdinetan ikus zitekeena ulertzeko. Hegaztien erakustaldia ere ikusteko aukera izan zuten anfiteatroan. Ondotik, Kastejongo hotelean bazkaldu zuten eta Joxe Angelek girotutako dantzaldiaren ondotik, denak pozik itzuli ziren etxera.

dute. Aipatzekoa da Kroaziarako bidaiarako 93 eskakizun egin direla. Aralarrera bixita uztairekin 30a arte atzeratu dela eta bazkidearen eguna urriaren 22an iza-

nen dela. Ikastaroetan izen emateko azken eguna abuztuaren 31 izanen da. Solasaldi interesgarriak izanen dira, hala nola, argindar konpainiei buruzkoa,

Doneztebe, Elizondo, Bera eta Leitizan eskainiko dena.

Beste aldetik, oihartzun handia izan du 1936ko Gazteluko gertakari larriaren in-

## GOBERNUAK LAGUNTZA

368.587 euro eskualdeko basoen hobetze lanetarako

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 1.896.481 euro eman dizkie 126 toki-erakunderi. Diru-laguntza horien bidez, Nafarroako zuhaitzen baso-azalera zabaltea, batik bat birsortzeko gaitasuna dutenak; baso-lurrak babesteko orduan toki-erakundeekin duten lankidetzaren sustatzea; eta mendiko produktuen lehen eraldaketarako jarduerak sustertzeko laguntza lortu nahi da.

Eskualdeko toki erakundeek 368.587 euroko laguntza jasoko dute. Leitza-Urumealdean **Aresok** 22.106 euro, **Leitzak** 7.346 euro, **Goizuetak** 94.509 euro; Maierrekan **Eratsunek** 4.860 euro, **Beintza-Labaienek** 32.888 euro, **Zubietak** 12.860 euro, **Iturenak** 7.011 euro, **Oizek** 5.578 euro, **Urrozek** 6.372 euro; Bortzirietan **Etxalarrek** 28.976 euro, **Igantzik** 9.258 euro, **Arantzak** 12.421 euro, **Berak** 32.179 euro; **Baztango** Udalak 66.040 euro eta **Bidasoa-Berroaran** batzordeak 26.183 euro. Mendiaren kudeaketa iraunkorra, basotzea, itxurak jartzea, mantentze-lan zehatzak, oihaneko lanak eta gisakoak egiten dituzte.

guruan Joxe Mari Esparza idazleak idatzi duen "La Sima" liburua. Egileak liburuaren aurkezpena egiten du Doneztebeto zineman irailaren 22an, 19:00etan.

# ITURENGO BESTAK 2015

## UZTAILAK 17, ORTZIRALA

**Goizean eta arratsaldean** haurrentzako jokoak, bazkaria eta txokolatea. **19:00** Dantzariak **20:00** Txupinazoa herriko bertsolariekin: Alazne Untxalo, Iker eta Egoitz Gorosterrazu. **Ondotik** kalejira Mendaur Musika Eskola eta buruhandiekin. **21:00** Afarria Altxunea erretegian. **00:00** Olako taldearekin dantzaldia.



## UZTAILAK 18, LARUNBATA

**10:00** Argi-soinuak. **11:00** Haurrentzako aurpegia margotzeko tailerra **12:00** Kiki pailazoa **17:00** Mus Txapelketa **19:00** Pintxo Lehiaketa (bakoitzak etxean prestatu beharko du bandeja) **Ondotik** Afari Herrikoia plazan (paella eta xingar jatea eta sagardo kupela) **Ilunabarrean** Caza Huate taldearekin musika mexikarra **Gauean** Oharkaberekin dantzaldia. (Larunbat goizetik aurrera, egunero izanen dira puzgarriak eta toka)



## UZTAILAK 19, IGANDEA

Lan orijinalak izan behar dute eta gaia irekia da. Hori bai, *Sunbilla*ko Tiburtzio Deunaren Bestak 2015/Fiestas de San Tiburtzio 2015 jarri behar dute nahitaez. Uztailaren 17ko 15:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean edo [info@sunbilla.com](mailto:info@sunbilla.com) helbide elektronikoa. Irabazle lanak erabiliko dira bat kartel handirako eta bertzea programarako eta produktu-xorta izan dute saritzat.

### Ikasturte bukaera

Ekainaren 19an 2014-2015 ikasturteari bukaera eman zioten ttikienek. Goitiko eskolan elkartu ziren Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta gosari eder bat egin zuten. Ondoren denborak ez zenez sobera lagundu frontoian eskaini zituzten taldeka prestatutako antzerki,

kanta, dantza, eta bertze emanaldiak. Horrekin batera 6. mailako bortz ikasleei ere agurra egin zitzaion.

Uda sasoirako Guraso Elkarteak bi ludoteka antolatu ditu. Batetik ttikienentzako, 2 urtetik Haur Hezkuntzako 3. maila bitarte eta koxkorrena, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. maila bitarte. Azken hauentzat, iazko arrakasta ikusita, ingelesez antolatzen den bigarren urtea da.

Ludoteka ttikienean hezitzaileak Olaia Gandara, Laura Mendibil eta Itxaso Arrieta izanen dira. Ingelesekoan berriz Rakel Ordoki eta Joxean Iribarren. Ttikien ludotekak ekainaren 22an hasi eta 7 astez jarraian iraungo du. Ingeleseko ludoteka berriz uztailaren 1. bakarria izanen da.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Sua eta keimada Ariztigain kanpenean

Ariztigain Kanpenean, San Juan suak antolatu zituzten ekainaren 20an, larunbatarekin, keimada eta guzti. Iazkoarekin alderatuz, aurtengoan eguraldiak lagundu zuen eta izugarriko giroa izan zen.



ARGAZKIA: M. PETRIRENA

### San Juan bezperako suak

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, frontoi atzekaldeko plazan San Juak suak saltatzeko jendetza bildu zen. Aurretik bokatak jateko ideia suertatu zen eta ondoren hiru tamainako suak piztu ziren: ttikienak, koxkorak eta nerabeak.



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

### Kinto besta

San Juanak akitu eta San Pedroak hurbildu zaizkigu eskualdera. Sunbillako 1968, 1969, 1970, 1971 eta 1972an sortutakoak kinto besta egiten hasi ziren duela bortz urte eta aurtun ere ez dute hutsegini. Giro ederrean ospatu zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Giro aparta udal igerilekuan

Eguraldi onarekin batera herriko igerilekuaz disfrutatzeko tarteak daukagu. Ekainaren 15ean ireki eta udaran sartu baginen sartu, ona egiten ari da. Horren adierazle piszina ibiltzen den giro aparta.

**OSPAKIZUNAK → 320 LAGUN HERRI BAZKARIAN**

# Eguraldiak eta jendearen partehartzeak berotu ditu Sanpedroak

Hondar eguneko erreka igoera berreskuratu da

**Marga ERDOZAIN**

Bezperako txupinazoa hagitz jendetsua izan zen eta suziaren beroa mantendu da besta guztietan, bai gauez baita egunez ere.

Udalak gonbidatuta, taldeko eragileak eta norbanako aunitz elkartu ziren bezperan txanpainaz egindako topa egiteko eta beste merizitako hasiera emateko. Asteburuan jende aunitz ibili zen bai egunez baita gauez ere. Bestak lasaiak, jendetsuak eta parte-hartze handia izanda burutu dira. Bestak aurkezteko eta programa osatzeko egindako saiakerak bere fruituak eman ditu, jendea laguntzeko prest baitzegoen eta horrek besten arrakastan isla izan du. Buruhandiak, zezen txikiak, txaranga, musika taldeak, dantzarien emanaldia, partxis lehiaketa, mus txapelketa, bingoa... izan dira aurtengo beste koleorea eman dietenak.

**HERRI BAZKARIA ETA ERREKA IGOERA**

Ekainaren 30ean, beste urrezko bukaera

eman nahian, herri bazkaria antolatu zen. Berrikuntza gisa aurtan bi menu herrikoi prestatu ziren, bat helduendako eta bertzea txikiendako. Herri bazkaria auzolanez eta jende aunitzen elkarlanari esker, Intzakardin bildutako 320 lagunek bazkari zoragarriaz gozatzeko aukera izan zuten. Bazkariaren ondoren eta Xanti Uterga alkateak botatako erronkari kasu eginez, Galbaraialdearen igoera burutu zen. "Pakito" presatik abiatuta, Shantiraino ailegatuta. Txarangak lagunduta ume, gazte eta "beterrano" aunitz errekarren igoerari ekin zioten ikuslegoen txalo eta abes- tiez lagunduta. Horrela, aspaldiko ohitura berreskuratuz, eta 40 graduko tenperaturari aurre eginez, bukaera eman nahi izan zioten doneztebarrek bazkari zoragarriari. Bustialdiaren ondoren, eta gaixoa ni ekitaldirako indarrak hartzeko, txistorrada ederraz gozatu zuten bertaratu zirenek.

**Igerilekuko taberna martxan**

Jendearen eskakizunari erantzun nahian Udalak igerilekuko taberna martxan paratu du zerbitzu hori emate-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bestetan giro ederra izan zela garbi erakusten du argazki-xorta honek.

ko. Uztailaren 1 ean akitu zen lehiaketa publiko honetan parte hartzeko aukera. Eskaintza bakarra jaso denez, Iratxe eta Arantxa Amigorena gazteek irekiko dute taberna. Jarduera igerilekuko denboraldi osoan zabalduko da.

**Ba al zenekien**

Alfredo Zugarramurdiren kargu uztearen ondorioz Koldo Garcia izanen dela PSNko zinegotzi berria.

**BORDAKORREA**

Gure Haragia  
Nuestra Carne

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

## ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → 70 LAGUN BILDU ZIREN AFARIAN

# San Juan bezperako ospakizunean giro bikaina

Ezki soinuak aditu ziren gauerditik aurrera, ohiturari eutsiz

ren eta ilunabar polita pasatu zuten. Herriko musikariak aritu ziren giroa alaitzen eta gauerditik hasita ezki soinuak aditu ziren, ohiturari eutsiz. Jendea gustora ibili zen.

### Fermin ETXEKOLONEA

Txitxillo elkarteak antolatu du aurten San Juan bezperako ospakizuna. Jendeak zer eraman banatu zuten eta arrunt ongi atera zen. 70 bat lagun elkartu zi-

### Udal kontuak

Beste langile bat hartu du udalak, dirulaguntzaz baliatuz. Ander Aragon da eta ondoko hilabeteetan herriko lanak egiten ariko da.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Suaren gainean saltoka ederki ibili ziren neska-mutikoak. Gero, heldu nahiz gaztetxo, 70 bat lagun bildu ziren plazako afari-berenduan.

### Mendian lur erortzak

Lesakako Ubiria erakuntza enpresak mol-

datuko ditu euriaren ondorioz kaltetutako pistak. Lur erortzak izan diren pistak egokitzeko,

12.000 euro inguruko laguntza izanen da eta horrekin lanaren erditsua ordainduko da.

## ITUREN

GIZARTEA → AURKEZTUTAKO BORTZ LANEN ARTEAN BOZKATUENA IZAN ZEN

# Maxi Gerekaren kartelak iragarriko ditu bestak

1950eko bestetako argazkia dauka oinarrian

### Arkaitz MINDEGIA

Bosgarren urtez, Iturengo bestak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Udalak. Bortz lan aurkeztu ziren eta horien artean, Maxi Gereka iturendarrarena suertatu da garaile. Herriko Etxeko ganbaran ikusgai izan ziren bitartean,

138 botu eman ziren eta horietatik 41 jaso zuten Gerekaren lanak. 1950eko bestetako argazkia dauka oinarrian lan irabazleak.


### Abarunen Udalekuak

Ikasturtean zehar kanpaldiak eta udan udalekuak antolatu dituzte Abarun Aterpetxean. Uztailaren 12an hasiko dira Euskal Herriko haur guzietan. Urte guztian bezala aterpe-

txe zerbitzuarekin ere segituko dute.

### Uztailaren 12an azoka

Hilabetearen bigarren igandea iristean Iturengo plazan azoka giroa nagusitzen da, Artisau eta Lanbide Azoka egiten da eta. Uztailaren 12ko zita berrikuntzekin dato gainera, uztailetik aurrera, gisa guzietako ekitaldiak izanen baitira. Hilero zerbitzua ezberdina eginen



ARGAZKIA: MAXI GEREKA

Oinarrian, 1950eko bestetako argazkia dauka kartel irabazleak.

dute eta oraingoan Mendaur trikitixa eskolako Iratxe, Ekiñe,

Amaitane eta Uxuek kontzertu txiki bat eskainiko dute.

OSPAKIZUNAK → HERRIKO FESTAK GIRO ONEAN

## Tortillak pixtu du aurtengo Sanjoan sua

Festetako programan berritasun franko izandu dira

### Markel LIZASOAIN

San Joan eguneko tortilla lehiaketa zen aurtengo programako nobedadea Saldiasko festetan, eta inondik inora ere funtzionatu du. Hemezortzi tortilla presentatu dituzte, eta hiru goxoenak Taberrengo Edurnerenak, Otxantrengo Maiterenak eta Txaparrerenak izandu dira. Plazan jendalde polita bildu zen, eta afori etsia txistor mutur ba-

tzuekin hartu zuten. Hori izandu da programako berritasunetan handiena, baina programa osoa zegoen han-hemen pixka bat ukitua. Herri ttiki hauetako usadio kasik sakratua diren zopa bikainak ezin aipatu gabe utzi, eta, aizkol apustu eta pilota partida bana baziren ere, eguneko musikari indar handia eman diote, gaueko parrandarekin ere ongi konplituta, eta nola txistulariek nola tritkitulariek nola organojotzaileek doinu finak eta alaitasuna ekarri dituzte herrira, hala goizean, hala eguerdian hala arratsean.

Aroak ere ezin hobeki lagundu du; horretaz,



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

Jende asko ibili da marrankatua; erremedio zaharra: sanjoan bezperako sua. Behean, ezkerrean, tortilla lehiaketaren eguneko erretratoa eta eskuinean, San Joan eguneko.

batzuek beti bezala belarretan aritu behar izandu dute jo eta kea. Pes-

tari akabila emateko, otordua eman zuen herriko etxeak San Joan

egunean meza ondoan, Taberrenko atarian, eguzki ederrarekin.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Udako merkealdia**  
uztailaren 16tik aurrera

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

# ARANO

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 24TIK 26RA

## Hiru egunez ospatuko dira herriko festak

Festa aurreko igandean pala txapelketako finalak jokatuko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Santio festak umorez datoz aurten ere. Uztailaren 24tik 26ra hainbat ekitaldi antolatuta dituzte, baina aurreko igandean ere izango da festaren seinalea.

### IGANDEA, UZTAILAK 19

- 11:00etan Aranoko XIV. pala txapelketako finalak, gizonezko nahiz emakumeena.

### OSTIRALA, UZTAILAK 24

- 18:00etan jaiei hasiera emango dien itxaferrua botako da udal txeko balkoitik. Umeentzat bonba japonesak eta buruhandiak.
- 18:30ean Feria. Herriko sagardo, gazta eta gainerako produktuen dastaketa eta bertako artisauen lanak ikusteko aukera izanen da. Tortilla dastakera ere egonen da.
- 22:00etan XXXIII. Mus txapelketa San Roke elkartean.

### LARUNBATA, UZTAILAK 25 SANTIO EGUNA

- 12:00etan umeen arteko pilota partida. Ondotik, Arano (Huizi eta Lizeaga)-Goizueta (Apezetxea eta Zabalera) arteko betiko pilota partida.
- Eguerdian eta arra-

tsaldean umeen jolasak izanen dira.

- 18:00etan herri kirolak. Aizkora apustua: Aizarnako Luis Txapartegik desafioa jokatuko du Ezkurrako Moises Gogortza eta Aranoko Xauxar baserriko Joseba Izetaren kontra.
- 18:30ean txokolata-da.
- 19:30ean bertso saioa: Julio Soto, Sebastian Lizaso, Jone Uria eta Sustrai Colina.
- 21:30ean norberak bere jatekoa ekarri eta herri afaria Astiazaran eta Imanol trikitalariek in girotua.

### LARUNBATA, UZTAILAK 26 SAN JOAKIN ETA SANTA ANA

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da plazaan.
- 11:30ean jubilatuen hamaiketakoa.
- 14:00: arkume jate herrikoia. Jubilatuen bazkaria. Bazkal ondorena fanfarreak girotua izanen da.

### TXARTELAK

Arkume-jateko txartelak salgai dira Herriko Kontseju tabernan, Goizuetako Amaia Kafeterian, Ereñozuko Irrintzin eta Hernaniko Deportibon. Txartelak 30 eurotan erosteko azken eguna uztailaren 20a. Umeentzat menua egongo da 6 eurotan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mahai-inguruko giroa eta kirola, festetako nahitaezko bi osagarri.



## Aranoko Udalak

*jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei*



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 15EAN

## Herri afaria prestatuko dute Karmengo Amabirjin bezperan

Patata tortilla  
lehiaketan  
edozeinek har  
dezake parte

### TTIPI-TTAPA

2011n berreskuratuko ohiturari eutsiz, uztailaren 15ean, asteazkena, Amabirjin Karmengo bezpera dela eta plazan herri afaria eginen dute bosgarren urtez, 20:30ean hasita. 21:30ean suak piztuko dituzte. Euria eginen bazu pilota plazan izango

da afaria. Sagardoa, ardoa, platerak, edalontzik, labanak, eta abar udalak jarriko ditu.

Patata Tortilla lehiaketa ere izango da, 19:00etatik 20:00etara. Edonork parte har dezake. Izena eman daiteke Umore Ona elkarrean edo Amaia Kafetegian uztailaren 13a arte.

Udalak emango ditu patata, tipula eta arrautzak. Sua, zartaria eta behar den tresneria, aldiz, norberak eraman behar du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Udako "lanetan" hasiak dira gaztetxoak

31 neska-mutiko hasiak dira Hernaniko igerilekuan, uztail osoan. Kirol udalekuetan ere hasi ziren uztailaren 2an eta hilabete bukaera arte ariko dira.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Hernaniko auroren ondotik Tafallara joanen da Abesbatza

Umore Ona abesbatza Hernaniko San Joan festetan izan zen ekainaren 20an, Ereñotzuko Ozenki abesbatza eta Hernaniko Kantuzekin batera, kalez kale Aurorak kantatuz, azken urte hauetako ohitura jarraituz. Aurrera begira, aurten Nafarroako Auroron 39. bilkura eginen dute uztailaren 19an Tafallan eta bertan izanen da herriko abesbatza, Ozenkirekin batera. Edozein joan daiteke, horretarako abesbatzako kideren bati aipatuta. Goizeko 5etan abiatuko da autobusa.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Andoaingo pilota eskolaren bixita

Ekainaren 26tik ekainaren 29ra, Andoaingo pilota eskolako umeak etorri ziren Goizuetara. Bertako umeekin jokuak eta hainbat ekintza antolatu zituzten. Unai Loiarte eta Itsaso Lujanbio zinegotzia azken agurreko ekitaldian egon ziren. Argazkian agertzen dira Goizueta eta Andoaingo umeekin batera.

### ERREMORTE ETA ESKU PILOTA FINALAK ASTEBURU BEREAN

### Aritz txapeldun, Aimar txapeldunorde

#### TTIPI-TTAPA

Bi final asteburu berean herriko pilotari profesionalentzako eta ezin izan zuten biek txapela jantzi. Aritz Zubiri erremontelariak lortu zuen promozio-

koa, baina Aimar Olaizolak esku pilotan ezin izan zuen buruz buruko bosgarrena lortu. Eta larunbat honetan Herriarteko finala jokatzea lortu zuen Goizuetak. Hurrengoan horren berri.

## LEITZA

GIZARTEA → ELKARTASUN EKINTZAK ANTOLATUAK

# Torrea ixteko agindua berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak

Elkartasuna adierazi dute herriko 66 eragile eta pertsona ezagunek

## JM BARRIOLA

Torrea Elkartearen aurka iaz Espainiako auzitegi Nazionalak hartutako erabakia berretsi du Auzitegi Gorenak. Orain dela 13 urte abiatu zen hainbat pertsona eta herriko tabernen aurkako auzia bere gorenara iritsi da. Espainiako Auzitegi Gorenak 101 elkarte bahitu eta bost pertsonari urtebete eta hamar hilabeteko kartzela zigorra ezarri die. Horien artean, Leitzako Torrea betiko ixteko agindu dute Espainiako auzitegiek. Horren aurrean, herriko hainbat eragile eta norbanakok agerraldia egin zuten ekainaren 25ean.

Bertan, Torrearen historia llabur bat egin zuten: «Torrea sortzeko ahaleginean Leitzako herritar ugari abiarazitako auzolana 90eko hamarkadaren hasieran jarri zen martxan, eta

geroztik hainbat urtez jardun du eskuz esku elkarlanean, herriko egunerokotasunean alternatibak sortzen eta bultzatzen eta hamaika ekimenetan eraldaketa-rako dinamikak pizten. Torrea, finean, taberna batetik harago doan proiektu bat izan da». Aitortza horrekin batera, elkartasuna eta babes osoa eskaini nahi izan zioten Torreari.

## BABESETIK KONPROMISORA

Hainbat batzar informatibo burutu dira eta herriko zein eskualdeko 66 eragile eta herritar ezagunen babesajaso du egun hauetan. Horretaz gain, ekimen ugari burutu dira ekainaren 27an egun osoan Torrearekiko elkartasuna eta egoeraren salaketa adierazteko eguna izan zelarik. Horretaz gain kontzertuak ere izan dira, ekainaren 27an Katez taldeak jo zuen, uztailearen 1ean Esne Beltzak eta uztailearen 3an Etsaiak taldeak. Datozten hilabeteetan ere elkartetik antolatzen diren ekimen guztietan parte hartzeko deia luzatu dute.



ARGAZKIAK: ENEKO ASTIBIA ETA UTZITAKOAK

Goian ekainaren 26an egin zuten agerraldia, behegian elkartasun ekitaldiak.



ARGAZKIA: PABLO FEO

## San Juan bezperako suak ospatu ziren

Urteroko legeaz, udako solstizio garaian Sanjuan bezperako ospakizuna izan zen herrian. Arratsalde partean haur eta familiek afaldu ondoren, herriko plaza lagun taldeak bildu ziren afaltzeko asmoz. Aurten 600-700 herritar inguru bildu ziren umore ederrean. Ondoren gauerdian suak piztu eta nahi izan zuten su gaintik jauzi egiteko aukera izan zuen lege zaharra betez. Aurten, iaz bezalaxe, Udalak eta Mendialdea Mankomunitateak zaborrak bereizi eta bakoitza bere lekuan botatzeko deialdia egin du, zabor pila handia sortzen delako. Horretarako ontzi egokiak ere jarri zituzten, birziklatu litezkeenak. Jendearen erantzuna orokorrean ona izan zela dio udalak eta gehienak nahiko txukun erantzun zutela baloratu dute. Aurrerantz ere, jendetza biltzen den gisa honetako otorduetan eta jaietan saiakera bereziak egiten dira, hondakinak bereizi eta birziklapena bultzatuz.

**10 SARRERA**  
ZOZKETATUKO  
DITUGU  
urtean zehar

**TeriSari**  
LAND

IGANTZI NAFARROA  
Tel +34 948 928 922  
www.irrisarriland.es

ONDAREA → HERRIKO LANGILEAK

## Beheko labaderoa konpontzen hasi dira

Zorigaiztoko ezbeharra izan zen ekaina bukaeran

**Juana Mari SAIZAR**

Aspaldixkoan ikusten genuen Zubidi ondoan dagoen labadoreak, beheko labaderoa bezala ezagutzen denak, teilatua gaizki zeukala. Eguraldi onak lagunduta teilatu berria

jartzen hasi dira herriko langileak. Sarri bukatuko dituzte lanak eta seguru txukun txukun geratuko dela.

### Zorigaiztoko ezbeharra

Herri guztia guztiz ukituta utzi zuen heriotza izan genuen ekaina bukaeran, Sastineko lñaki traktoreak harrapatuta hil baitzen. Herri txikitian guztiok eza-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Beheko labaderoari teilatu berria jartzen ari dira.

gutzen dugu elkar, baina gainera lñakik herriko tabernakoa izanik herritar guztiekin tratua zuen. Agur ederra egin zitzaion Aresoko elizan, jendetza etorri zen eta dudarik gabe dagoen tokian dagoela oso harro egongo dela familia-koez. Orain etxean hiru emakume eder, emaztea eta bi alabak, utzi

ditu, baina herritar guztien laguntza ez zaie faltako, ez beraiei ezta gairontzeko familiako kideei ere. Hemendik animo asko bildatzen dizkiogu familia osoari.

### Ludoteka zerbitzua

Haurrentzako ludoteka zerbitzua eskainiko da uztailaren 13tik

abuztuaren 7ra arte. Goizero, bi orduz ekintza desberdinak egiteko aukera izango dute, astelehenetik ostiralera, 11:00etan hasi eta 13:00ak arte. Apuntatzeko zerrenda kendu zuten arren, norbaitek oraindik bere haurra apuntatu nahi balu udaletxera deitu eta izena eman beharko luke.

## EZKURRA



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Ezkurra eta Leitzako mendizaleen irteera

Beste urte batez Ezkurra eta Leitzako mendizaleek itzuli bat egin eta Barranka ostatuan bildu ziren. Bazkarian 34 elkartu ziren, baina Perralekutik abiatu eta Erakurrin barrena (1.142 m.) igaro zen lau ordu eta erdiko zeharkaldia hama-seik bakarrik egin zuten. Ezkainen gosaldia eta Olegitik pasatuta, Eratsungo Iruñarriko menhirrean ateratu zuten argazkia. Ola baserritik jautsita, zuzenean bazkaltera joandakoekin bildu ziren gero.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### San Juan bezperan sua aspaldiko partez

Aspaldian ez zen San Juan bezperako surik piztu Ezkurran, baina aurreko guraso eta seme-alaba batzuk egin dute. Ea datozen urteetan bizilagun gehiagok ere parte hartzen duten.

# BAZTAN

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 19AN

## Dena prest dago aurten ere Baztandarren Biltzarra ospatzeko

52. edizioa ere  
*Baztanen*  
*eskuara*  
*barra-barra*  
goiburupean  
eginen da

### TTIPI-TTAPA

*Baztanen eskuara barra-barra* leloarekin, aurten 52. aldiz baztandarren besta handia ospatuko da uztailaren 19an. Aurten ere egun osoko besta izanen da eta hori horrela izateko egitarau osatua prestatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak, egun horretan biltzen diren baztandarren eta bisitan etortzen diren ehundaka lagunengozamenerako.

### ORGEN DESFILEA ETA AUNITZ GEHIAGO

Uztailaren 19ko egun handiari dagokionez, igande goizeko 10:00etatik aitzinera, goiz osoan artisauen erakusketa egonen da ikusgai Pedro Axular



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Urtero bezala orga apaindu dotoreak karrikatuko dituzte baztandarrek. Beheitian, aurtengo ospakizuna iragarriko duen kartela, Juan Angel Perotxenaren *Puxkeka*.

karrikan. 11:00etan herri bakoitzak prestatutako orga apainduen desfilea hasiko da. 14:00etan Mutildantzak izanen dira Elizondoko plazan eta ondotik herri bazkaria izanen da Merkatuko zelaian. Bazkalondoko animazioan, Baztango *ioiak* edo eztei-soinuak, Baztandarren Biltzarren mezua, sari bana-

keta, animazioa eta dantzak izanen dituzte Merkatuko Plazan.

18:00etan hasita Trikidantz taldeak dantzaldia eskainiko du Laxoako plazan eta 20:00etan Oharkabe taldeak hartuko dio lekukoa. 01:00etatik aitzinera, Tirry&Tery Djak ariko dira Laxoako plazako Baztandarren Biltzarren ostatuan.







Ongi pastu  
Baztandarren  
Biltzarra  
eta herriko  
bestak!!

### IRAILEAN ELIZONDON

Tokiko elikadura eta nekazaritza ekologikoa udako ikastaroa

### TTIPI-TTAPA

Baztango udalak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean, tokiko elikadura sistema eta nekazaritza ekologikoa- ren inguruko udako ikastaroa antolatu du, Baztango tokiko garapenean interesa duen edonorentzat. Ikastaroa Elizondon eginen da, irailaren 3tik 4ra; ortzegunean 9:00etatik eta ortzira- lean 10:00etatik 18:00etara bitarte. Matrikula doakoa bada ere, izen-ematea ezinbertzekoa da.

Bertzeak bertze, agroekologia ikuspegi ekonomiko, sozial nahiz ekoizpen ikuspegitik aztertuko da; trantsizio agroekologikoaren bidea ikuskatuko da; eta Baztan oinarri hartuta tokiko elikadura sistema garatzeko aukerak ikerituko dira. Honen bidez, nekazaritza ekologikoa baserri mundutik atera eta gizarteratzea lortu nahi da, elikadura sisteman, garapen ekonomikoan, osasunean eta bizi kalitatean duen garrantzia ikusaraziz.

Ikastaroan parte hartzen dutenek hautaketa libreko kreditu edo ECTS bat lortzeko aukera izanen dute.

Mármoles  
**SOULE**

HILETA ARTEA

T. 948 453 444

M. 688 605 182

ARIZKUN



GIZARTEA → EKAINAREN 25EAN IRUÑEAN

## Nafarroa Oinezek bideoklipean aurkeztu du bestarako kantua

### Sanferminetan Oinez Txokoa ere bisita daiteke

#### TTIPI-TTAPA

Iosune Ortegak, Baztan Ikastolako zuzendariak, eta Fernando Anbustegik, bideo-kliparen koordinatzaileak, aurtengo Nafarroa Oinezeko kantua eta bideoklipa aurkeztu zituzten ekainaren 25ean Iruñean, Sanferminetarako prestatutako Oinez Txokoaren berri ematearekin batera. Nafarroako Ikastolen Elkarrekin Josu Reparaz haiei laguntzen izan zen aurkezpenean.

Baztan Ikastolako bi ikasle ohik sortu dituzte melodia eta hitzak: Iñigo Beltzunegi *Iturriak* kantua eta Jon Barberenak hitzak. Melodiari dago-kionez, irlandar tradizioan erabiltzen diren musika tresnekin egindako kantua da, bat-batean eta noizbehinka reggae-a eta soinu jamaikar tropikalak agertzen badira ere. Kantua-

ren grabaketan honetarako espreski elkartutako 7 musikaririk eta 3 abeslaririk parte hartu dute, gehienak baztandarrak. Errepikak edo koroak Baztan Ikastolako ikasleek eta Elizondoko Koro Ttikiko haurrek egin dituzte.

Gidoia prestatu, grabatu eta editatzeko lanetan taldetxo bat aritu da eta aktore lanetan Baztan Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoez gain, oro har Baztango herri guztietako jende aunitzek parte hartu du. Auzolanean aritu dira, Baztanen lan ohitura horrek duen garrantziaren erakusgarri. "Hamabortz, Ama...bat" aurtengo Oinezeko leloak eman dio izenburua kantari eta letrak eta bideo-kliparen grabaketak ere oinarritzat hartu dute. Zenbakiekin eta eragiketekin josteta modukoa egiten da, gure ama hizkuntza den euskarekin Baztango hamabortz herriek mundu bat osatzen dutela azpimarratuz. Lortu dugun mundu ttipi honen helburua handitzea, hedatzea eta edertzea izan da, eta



UTZITAKO RGAZKIA

Baztan Ikastolako eta NIEko ordezkariak, kantua eta bideokliparen egileekin.

horren adierazgarri izan den aurtengo Nafarroa Oinezera hurbiltzeko gonbidapena egiten du kantua.

Baztango hamabortz herriak erakutsi nahi izan dituzte bideoklipean, bat bertzearekin lotuz, hamabortzek bat osatzen dutela adieraziz.

Baztango hamabortz herriak agertzen dira bat bertzearen segida gisa, bat direla irudikatu nahian; tartean, kantuan parte hartu duten musikari eta abeslariak, baita Baztango irudi zoragarriak ere, eta akabailan *time lapse* jendetsu bat.

#### BAZTANGO OHITURAK OINEZ TXOKOAN

Urtero bezala, Sanferminetan Oinez Txokoa denendako zabaldu du Nafarroa Oinezek Vista Bellan. Egitarau zabala, anitza, adin guztietarako ekitaldi beterikoa prestatu dute.

#### UZTAILAREN 18AN

### Ehiza eta Arrantza elkartearen batzar orokorra Arizkunenean

#### TTIPI-TTAPA

Baztango Ehiza eta Arrantza Elkartek batzar orokorra egingen du uztailaren 18an Arizkunenean, 17:00etan lehen deialdian eta 17:30ean bigarrenean.

Azken akta irakurri eta onartu ondotik, 2013-14ko kontuak eta bazkide berrien sartzeko eskakera aztertuko dituzte; Zagua eta Peñaseko postuen adjudikazioa (%50 elkarrekin, %50 bazkideek), kanpokoendako txartelak, langabezia dauden bazkideentzat auzolana, udaz kanpoko rezeptxoaren debekatzea, uso postuen zozketaren ordu aldaketa eta lehendakariaren kargua batzarraren esku uztea aztertuko dituzte, galdera eta eskaeren txandaren aitzinetik.

#### Udako zinea herriz herri

Duela urte batzuk Elizondoko Merkatuko plazara mugatzen zen Udako zinea zikloa, baina aurten ere herriz herri dabil uztaileko astelehen guztietan eta abuztuaren 3an. Uztailaren 6an hasi zen Elizondon; hilaren 13an, Anizen, Zipi, *Zape eta kanikaren kluba* eskainiko dute; uztailaren 20an, Lekarozen *Perez gure sagutxu hori*; uztailaren 27an Arraiozen *Argi bila* eta abuztuaren 3an Amaiurren *Vicky Bikingo eta Thorren mailua*.

**ELEK BERRI**  
INSTALADORE BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)  
ENPRESEN MANTENIMENDUA  
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK  
TELEKOMUNIKAZIO INST.  
PORTERO AUTOMATIKOAK  
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na) • [elekberri@gmail.com](mailto:elekberri@gmail.com) • 646854825 // 616898065

**Gierresenea**  
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONOS - MUGAIRI

# BAZTAN

GIZARTEA → UDAL GOBERNU TALDEAREN OHARRA

## Almandozko saihe- sibideaz eta urbanizazioaz azalpenak eman dituzte

UPNk legealdi berria truku zaharrekin hasi duela dio

### TTIPI-TTAPA

Almandozko saihe-  
sibidea eta urbanizazio-  
aren inguruan prentsan  
argitaratutako informa-  
zioaren harira Udal Go-  
bernuak jakinarazi nahi  
du «UPNk, legealdi ber-  
ria truku zaharrekin hasi  
duela». Hala, «eman  
den desinformazioa zu-  
zendu nahian» Udal Go-  
bernuak dio afera honetan  
bi kontu berezi behar direla,  
«alde batetik 2009-2012  
Tokiko Azpiegitura Plana  
eta obra horren errenuntzia  
zergatik egin zen, eta  
bertze aldetik Almandozko  
AR-1eko urbanizazioaren  
egoera».

2007-2011ko lege-  
aldian NaBaik 2012ko  
2.233.850,33 euroko  
gastu osoa aurreikusia  
zuen inbertsiorako to-  
kiko azpiegitura plane-  
tik. Horietatik Nafarroa-  
ko Gobernuak 1.560.295,53  
euro ordainduko zituen,  
tarte-  
an, BEZari zegozkion  
85.093,89 euro; Udalak  
berriaz 588.460,91 euro.  
Ordainketa NaBaik  
"Fondo de libre deter-  
minación" delakotik  
hartzea aurreikusten zu-

en 448.508,45 euro; eta  
139.952,46 euro maile-  
gu baten bidez egitea.

Aurrekontuak egite-  
rakoan, ordea, argi gel-  
ditu zen Baztango zor-  
petze mailak goia joa  
zuela eta ez zegoela au-  
kerarik gastu horiei au-  
rre egiteko, ezta maile-  
gua eskatzeko ere. Hor-  
tik aparte uholdeak izan  
ziren eta gastu horiek  
eta bertze ezustekota-  
rako zegoen diru baka-  
rra funtsa horretan ze-  
goela ikusita, tokiko  
azpiegitura planeko o-  
bra batzuen errenuntzia  
eskatzea erabaki zuen  
Udalak. Errenuntzia ho-  
rrek Nafarroako Gobe-  
nuak 1.094.268,82 eu-  
ro gutxiago gastatzea  
suposatzen zuen eta  
Udalak 456.270,02 gu-  
txiago. Diru honetatik  
Baztanek 456.270,02  
euro liberatzeko auke-  
ra izan zuen bertze be-  
harrezkoak ziren inber-  
tsioak egiteko (eskolen  
konponketa, energia  
aurrezteko inbertsioak,  
uholdeen kalteak...).

Almandozko saihe-  
sibidearen obrak bakarrik  
1.008.441,98 euroko  
aurrekontua zuen ber-  
az, hori egin izanez ge-  
ro bertze obrak gauza-  
tzeko aukera gutti ego-  
nen zen. «Aipatu behar  
da bertzalde, egin be-  
har zen obran ez zela  
Almandozko argi inda-



ARGAZKIA: BLANKA BERTIZ

### Gallastegi omendu dute Oronozko San Martineko ikasle ohiek

Oronozko San Martin ikastetxe-  
ko ikasle ohiek urteroko anai-  
tasun besta ospatu zuten  
ekainaren 27an. Ekitaldia  
aprobatxatu zuten Miguel  
Gallastegi pilotari handia  
omentzeko, Eibarkoak au-  
nizetan parte hartu baitzuen  
Segundo Gangoitia anai  
maristak antolatzen zuen  
Pilotarien Egunean. 1918an  
jaio zen Gallastegi Eibar-  
ren, beraz, 97 urterekin,  
baina oraindik tente eta  
sendo, jaso du Oronozko  
ikasle ohien omenaldia.  
Tartean, Mikel Goñik ere  
parte hartu nahi izan zuen  
ekitaldian. Gallastegi ez  
ezik, Oronozko antolatzen  
ziren Pilota Egunean  
momentuko pilotari onenak  
pasatzen ziren, eskuz, palaz,  
erremontez nahi zesta  
puntaz aritzera. Miguel  
Gallastegik harreman bere-  
zia dauka Baztanekin,  
Eli-zondon jokatu zuen urte  
batean, Antxitonea trinke-  
tean ezagutu baitzuen gaur  
egun bere emaztea dena.

rraren horniketa haun-  
ditzea aurreikusten, sa-  
neamendua egiten zen  
bitartean argiaren kable-  
ak lurperatzea baizik»,  
dio Udal Gobernu Tal-  
dearen oharrak.

Gauzak horrela, le-  
hentasanak markatu zi-  
ren. Azkenean Baztanek  
tokiko azpiegitura plane-  
ko obrak egitea, lrurita  
eta Lekarozen arteko ura  
ekartzeko obra, Amaiur-  
ren ur depositoa berrit-  
zea, kontenedore batzuk  
eta Aniz, Berroeta eta  
Gartzaingo pistak egitea  
erabaki zuen. Honek  
Nafarroako Gobernuak  
466.026,71 euro eta  
Udalak 132.190,90 euro  
gehi BEZ 85.093,89 euro  
ordaintzea suposatzen  
zuen.

Udal Gobernu Tal-  
dearen oharrak dioenez,  
«Almandozko sanea-  
mendua eta bertze lan  
batzuk Nafarroako Go-  
bernuaren diru egoera  
txarrarengatik eta aurre-  
kontuen seriotasun fal-  
tarengatik bere horretan  
utzi behar izan zi-

ren. UPNk ongi dakien  
bezala Almandozko sai-  
hesibidearen lanak,  
Udalak errenuntziatu  
izan ez balu ere, ez zi-  
ren gauzatu ahal izanen;  
UPNk azpiegitura plane-  
rako zegoen dirua bertze  
gauzetan gastatu zuelako-  
z».

### URBANIZAZIOA

Urbanizazioari dago-  
kionez 2007-2011 lege-  
aldian, Udalak Almandozko  
eskola egin eta urbanizazio-  
aren barnean eskolari  
zegokien urbanizazio lanak  
egin zituen. Aldi berean,  
promotorearekin hitzarmen  
bat sinatu zuen non,  
Udalak egin dituen kon-  
sulten arabera, promotoreari  
dagokion urbanizazio hori  
bukatzea. Udalak promotoreari  
urbanizazioa bukatzeko  
eskatu dio eta bukatze  
lan horretan sartzen da  
argiaren horniketa. Pro-  
motoreak udalaren era-  
bakiaren aurka epaite-  
gietara jo du eta epai-  
aren zain dago. Urbanizazioan  
dauden etxeen

jabeak honen jakinaren  
gainean daude.

Hala ere, egoera eta  
hiritarren arazoari kon-  
ponbide bat bilatu na-  
hian, Udala harreman-  
etan egon da Iberdrola-  
rekin argiaren hornike-  
ta bermatzeko epaia  
atera bitartean eta ber-  
tze aldetik partikularre-  
kin. Modu berean partikular-  
zein promotoreari hitzarmen  
bat sinatzeko proposamena  
ere egin die. Hitzarmen  
horretan partikularrak  
lanak aurreratzeko auke-  
ra izanen zuen eta epai-  
keta galtzen zuenak ordain-  
duko lioke ondoren. Pro-  
motoreak uko egin dio  
hitzarmen hau sinatzeari.

Beraz, udal gobernu-  
aren ustez, «ulertezina  
da UPNk gaia horrela  
eta orain planteatzea.  
UPN udal honetan opo-  
sizioan eta Nafarroako  
Gobernuan agintzen  
egonda, orain arte ego-  
era honen berri ez duela  
erratea bere kudeatze-  
ko ezgaitasunaren era-  
kusle nabarmena da».

GIZARTEA → EKAINAREN 21ETIK UZTAILAREN 4RA

## Udaleku berezia egin du Aspacek Lekarozko gazte aterpean

Ezintasunen bat duten gazteek bere beharretara egokitutako jarduera eta terapiak egin dituzte

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Aspacek Lekarozko gazte aterpean udalekua egin du ekainaren 21etik uztailearen 4ra, burmuin perlesia edo gisako ezintasunak dituzten gazteen aisialdirako eta errehabilitaziorako egoki-

tua. Udaleku hauetan, udako jarduerak eta terapiak tartekatuta dituzte eta 13 eta 21 urte arteko hamar gaztek hartu dute parte, zortzi mutil eta bi neska daude, gehienak Nafarroakoak, baina baita Kanariar Uharteetatik etorritakoren bat ere.

Aspaceko bi profesionalek eta lau boluntarioek artatu dituzte eta Petö metodoko bi terapeuta ere izan dituzte laguntzaile, astegunetako goizetan terapiak egiteko. Aisialdia, berriz, igerilekuan, txangoetan, hondartzan, jokuetan eta bisita turistikoen eman dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nerabe eta gazteak, Aspacek Lekarozkoen egin duen udalekuan.

Udalekuen antolaketarako behar beharrezkoa izan da La Caixaren Gizarte Ekintzaren laguntza eta horregatik, bertze edozein udaleku arrunten prezioan atera zaie Lekarozkoa ere.

Nafarroako Aspace Fundazioak kudeatzen du Lekarozko Gazte aterpea eta bereziki egokia da ezintasunen bat duten pertsonak hartzeko, ez baitu inolako oztopo arkitektonikorik.

### UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

## Diana Iniestaren margolanak Erratzun ikusgai

### TTIPI-TTAPA

Diana Iniestaren *hAMAR, aitari* margolan erakusketa ikusgai dagoa uztailean margolariak Erratzun daukan tailerrean eta abuztuan Erratzuko lixutegian, Baztango margolarien ibilbidearen baitan. Olio egindako 30 margolan jarriko ditu ikusgai. Aita zenari eskaini nahi izan dio erakusketa, bere heriotzaren hamargarren urteurrenean. Joan den urtean egin zuen bezala, irail hasieran

bere koadro bat ere zozketatuko du erakusketako bixitarien artean.

Diana Iniestak dioenez, «nere margotzeko modua aldatu dut bai teknika aldetik, baita nere barneko ikuspegitik ere, espatulatik pintzelera eta taulatik lientzora pasatu naiz, eta kolore-paleta erabat egokitu dut, formato handiagoekin ausartzen naiz eta hamar urtez Baztanen bizitu ondok, tonuen aldetik begirada helduagoa daukat».



ARGAZKIA: IÑAKI ATXA

## Iñaki Atxaren kartela Santiago bestetan

Iñaki Atxa Aranburu elizondarrak irabazi du Elizondoko Santio bestak iragartzeko kartel lehiaketa *Bestetako blusa* lanarekin. Besta Batzordeak osatu du epaimahaia eta irabazleak 300 euro eta zikirorako bi txartel jasoko ditu. Lau lan aurkeztu dituzte lehiaketara.



## ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 20AN

# Iparreko bordakoek familia bilkura handia egin zuten

76 senitarteko elkartu ziren

**Margari eta Koro**

Familia ugariei buruzko erreportajea argitaratu zen berriki, eta hoietako bat Iparreko bordako familia zen. Gauza da familia hori ekainaren 20an besta batean bildu zela, denera 76 lagun elkarturik (19 haur eta 57 heldu).

Egun osoko besta egin zuten: eguerdian aperitifak batekin hasi zi-

ren, eta jatetxerako sarreran txalapartako harri bat izan zuten. Bazkal ondotik, eta arratsaldeko 7ak arte kantuz aritu ziren, eta gaueko 11k arte ostatuz ostatu alaitasuna zabaldu zuten herrian barna.

### Sorgin haizeak Katalunian

Ekainaren 27an Katalunian emanaldi bat eskaini zuen Sorgin haizeak herriko antzerki taldeak. Aurtengo lehenbizikoa izan da, eta Gi-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Iparrekobordakoak ekainaren 20ko bilkuran. Ederra kuadrilla!!!

ronako Sant Hilari Sacalm herrian aritu ziren, *Embruix* izeneko bestan.

Huesca eta Kataluniako Pirinio aldeko herrietan, sorginkeria kontuek garrantzi franko dute, eta arrunta da horren inguruko feriak antolatzea. Zugarramurdi-ko taldea hainbat herrietan egon da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Herriko antzerki taldea, Gironako emanaldian.

## URDAZUBI

GIZARTEA → SOS ALKERDI PLATAFORMAK EMAN DU EZAGUTZERA

# Alkerdiko lezean aurkikuntza berriak

Nafarroako Paleolitikoaren adibide ezagun bakarra

**Iñigo IMAZ**


Diego Garate eta Olivia Riverok zuzenduriko ikerketaren ondorioz irudi berriak agertu dira Alkerdiko lezean. 2014-2015 artean eginiko ikerketaren ondorioen laburpena agertu dute artikuluan batean.

SOS Alkerdi Plataformaren erranetan aurkitutako irudiak «galera estu batean daude eta beraiek gauzatzeko zailtasunak harridura eragiten du. Galeria horretan hogeita bat irudi agertzen dira grabatuta, bishonteen marrazkiek gehiago nabarmena dute, baina zaldi batzuk ere aurki daitezke. Hatzarekin margotutako bi puntu gorri ere ageri dira. Irudi hauen itxurak Magdalenien garaian ko-

katzen ditu, duela 14000 urte inguru».

Aurkikuntza berri honen aurretik ezagutzen ziren irudien kopurua biderkatzen du—diote Plataformakoek—, «Alkerdiko kobazuloa hormako artedun kobazuloen mapan gorengo postuetan paratuz. Hau izan daiteke azken urteotan Nafarroako historiaurrearen inguruan egindako aurkikuntzarik garrantzitsuenetakoa».

Plataformaren iritziz,



UTZITAKO ARGAZKIA

Bisonteen irudien artean zaldiak ere aurki daitezke.

Alkerdiko lezeko aurkikuntza berriak, Urdazubi-ko ondarearen garrantzia handitzen du, izan ere Alkerdi da Nafarroan Paleolitiko garaiko hormako irudiak dituen kobazulo ezagun bakarra. 1933 urtean Norbert Casteret espeleologo frantziarrak eman zuen horren berri lehen aldiz.

Geroztik Barandiaran eta bertze ikerlari garrantzitsuek bisitatu zuten kobazuloa artikulua argitaratuz. Hala ere, bertan lan gehien egin duen eta informazio zehatzena eman duen arkeologoa Barandiaran izan da 1974 eta 1994 urteen artean hainbat kanpainan egin baitzituen.



KUITURA → ABUZTUAREN 27AN

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Larreko aretoan

Donostiako 76. Hamabostaldia ren barneko emanaldia

**Franck DOLOSOR**

Donostiako 76. Hamabostaldia, musika klasiko jaialdi ospetsuak, oihartzun zabalaren du Lapurdin gaindi ere, eta bereziki gure herrian. Abuztuaren 7an, 19:30ean Senpereko elizan Landarbaso abesbatzaren kantaldia preziatzen ahaliko da Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean. Errenteria, Lezo eta Oiartzungo gazteek osatzen dute talde hau. Bertalde, abuztuaren 27an Euskadiko Orkestra Sinfoniakoaren aldi izanen da Senpererai-

no hurbiltzea. Haydn, Mozart eta Beethovenen obrak eskainiko dituzte Larreko kultur gunean. Iaz Saran aritzen zen orkestra ezaguna eta aurten Senpereko lurretan agertuko da. Ez da dudarik goi mailako programazioak oldar berria emanen diola kulturari gure herrian. Bi hitzorduek herriko etxearen eta ondareaz axolatzen den elkarte baten laguntza izan dute. Donostiako Hamabostaldian Mahler Chamber Orchestra, San Petersburgoko Orkestra Filarmonikoa, Cadaqueseko Orkestra, Osloko Filarmonikoa eta Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoa entzuten ahaliko dira, bertzeak bertze, Gipuzkoako hiri nagusiko Kursaal Aretoan.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

### Ederki iragan dira aurten ere herriko bestak

Herriko bestak ederki iragan dira aurten ere, bertzeak bertze, hazienden primak, Kalakan hirukotearen kontzertua eta gazteek ongixko apailatu duten aha-te jokoarekin. Orain amoztarren aldi izanen da auzo horretako bestak uztaillaren 10etik 14rat ospatuko baitira!

**JĀTĀTĀKĀ-ERRETEGIĀ**  
**MONTXO**  
**OSTATUA · TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetatik  
2 km. tara



PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRĀIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**



- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

# SARA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 12AN

## Meza, kukuso merkatua eta bazkaria izanen da igandeko Kermeza egunean

300 bat erakusketari bilduko ditu uztailaren 18-19ko merkatu erraldoiak

### Joana GERENDIAIN

Uztailaren 12an, igandearekin, kermeza ospatuko da. Goizeko 10etan meza emana izanen da. Egun osoan zehar frontoian kukuso merkatu bat izanen da eta baita jokoak ere. Bazkaria Lur Berri gelan egingen da.

### Zaharkin eta Kukuso merkatua

Hirugarren aldiko «Fiesta des Brocs» kukuso merkatu erraldoia Saran antolatuko da,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Datozen bi aste hondarretan izanen da zer ikusi plaza inguruan eta polikiroldegian, bietan kukuso merkatuak iragarri baitituzte.

aurten uztailaren 18 eta 19ko asteburuan. 300 bat erakusketari profesional Sarara hurbildu-

ko direla espero da. Haien erakusmahaiak plazan eta polikiroldegian instalatuko dituzte de-

netarik saltzeko: zahar-kinak, kolekzioak, liburuak... Sartzea urririk da.

### Margo eta eskultura erakusketa

Uztailaren 21etik 31ra «Larrungo koloreak» elkarteak bere obrak erakutsiko ditu Lur Berri gelan. Margo eta eskultura erakusketak goizeko 10etatik eguerdi eta erditara eta arratsaldeko 4etatik 7:30era idekia izanen da, nahi duen guziak ikus dezan.

### Saiberri taldearen kantaldia elizan

Uztailaren 23an, ostegunarekin, Saiberri Sarako taldeak kantaldi bat emanen du elizan, gaueko 21:30ean. Sartzea 5 eurotan da eta urririk 14 urte baino guttiago duten neska-mutikoentzat.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) |  
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA |

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

**Martzutzak**  
**ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA**  
 ♥ Soinekoak  
 ♥ Ilerako apaingarriak  
 ♥ Poltsak  
 ♥ Bisuteria  
 ...  
 f Bidasoa, 12 • BERA  
 948 631 425

## EZKONTZAK

**Leire Astiasaran** eta **Julio Lukanbio**, Villabona eta Arantzakoa, ekainaren 27an, Zizurkilan.  
**Ainara Atxukarro** eta **Igor Arraiago**, Berastegi eta Aresokoa, ekainaren 27an, Berastegin.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK


**Xune Jorajuria Paul**, Donamariakoa, ekainaren 26an.  
**June Apezetxea Elizalde**, Goizuetakoa, ekainaren 26an.  
**Maddi Ane Sainz Etxabide**, Igantziakoa, ekainaren 20an.  
**Aimar Apeztegia Gatón**, Doneztebekoa, ekainaren 21ean.  
**Alaia Bertiz Etxeberria**, Elgorriagakoa, ekainaren 24an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## HERIOTZAK

**Maria Socorro Apeztegia Dorregarai**, ekainaren 20an, 92 urte.  
**Marcelina Gamio Bikondoa**, Irurita-koa, ekainaren 22an, 88 urte.  
**Fidel Cruz Irisarri**, Etxalarkoa, ekainaren 20an, 80 urte.  
**Iñaki Onsalo Aldabe**, Aresokoa, ekainaren 25ean, 51 urte.  
**Francisco Maritorea Mendiberri**, Arraiozkoa, ekainaren 26an, 73 urte.  
**Jesus Mari Escudero Alzuarte**, Irurita-koa, ekainaren 26an, 80 urte.  
**Valentin Abuin Moro**, Lesakakoa, ekainaren 30ean, 82 urte.  
**Jacqueline Tonnaud**, Sarakoa, ekainaren 20an, 100 urte.  
**Armandine Aubry**, Sarakoa, ekainaren 23an, 83 urte.



**Jaime IRIARTE IBARRA**

Sunbillan, 2015eko ekainaren 10ean, 64 urterekin

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA



**Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ**

Arantza, 2014/07/15  
 I. URTEMUGA

*Zeinen erraza den zutaz oroitzea, Eta zeinen zaila, berriz, zu gabe bizitzea, Ez dugu pentsatzen zutaz ahaztea, Bai ordea egunero zu maitatzea. GURUTZE, espero dugu zauden lekuan Guretzako leku bat gordetzea.*

ZURE FAMILIA

**Angel APEZETXEA ESCUDERO**  
 Goizueta, 2015/06/17  
*Zuhaitz emankor bat erori da baina fruituak hemen gelditu dira. Ingurua alaitzen zuen zure irriparra ere itzali da baina ikasi dugu bizitzan garrantzitsua dela irriparra. Eskerrik asko Angel. Agur.*

LASTERKETAK → EKAINAREN 21EAN

# 231 korrikalarik parte hartu dute Doneztebeko Herri Krosean

Etxeberria eta Casado eskutik hartuta sartu ziren helmugan proba nagusian

## TTIPI-TTAPA

Giro ezin hobean joan da aurten ere Doneztebeko Herri Krossa. 231 korrikalari izan dituzte guztira, 121 tiki-en laisterketan eta 110 helduenean. Beraz, zerbait nabarmendu behar baldin bada aurtengo edizioaz, izandako partehartze bikaina izan da. Neskek ere, gero eta gehiago parte hartzen dute. Horien artean, Monica Telletxea irundarra izan zen bizkorrena, Ma-



Tiki-enak eta herriko korrikalarien podiumak: Iñigo Arregi eta Maider Jabalera garaile.

rina Aznal gartzaindarraren eta Maialen Apezetxea goizuetarraren aitzinetik. Gizonezko-

tan, Iruñeko Antonio Etxeberria eta Antsoaingo Antonio Casado nagusitasunez ibili ziren

eta eskutik helduta helmugaratu ziren. Iruñeko Daniel Sanz hirugarren izan zen.

## Senior gizonak

1	Antonio Casado	23:24
2	Antº Etxeberria	23:24
3	Daniel Sanz	24:04
4	R.Carlos Trejo	24:10
5	Mikel Etxamendi	24:50

## Senior emakumeak

1	Monica Telletxea	14:03
2	Marina Aznal	14:44
3	Maialen Apezetxea	15:14
4	Rosa Orofino	16:02
5	Rebeca Peña	16:43

## Herriko gizonak

1	Iñigo Arregi	25:01
2	Iñigo Lasaga	25:26
3	Santi San Miguel	25:40
4	Xabier Telletxea	27:32
5	Alfredo Telletxea	29:27

## Herriko emakumeak

1	Maider Jabalera	17:04
2	Eduarne Anzizar	17:10
3	Maider Mindegia	19:20
4	Saioa Diosdado	19:32
5	Cristina Zabala	21:09

Herriko korrikalarien artean, Iñigo Arregi eta Maider Jabalera gazteak izan ziren bizkorrenak.

HERRI KIROLA → EKAINAREN 26AN DIMAN

# Euskadiko ingude-jasotze txapelketa irabazi du Josetxo Urrutia leitzarrak

Maika Ariztegi bigarren izan zen nesketan

## TTIPI-TTAPA

Josetxo Urrutia Baletzena leitzarrak lehen aldiz irabazi du Euskadiko ingude-jasotze txapelketa. Ekainaren 26an Bizkaiko Diman egindako saioan 86 jasoaldi eman zizkion 18 kiloko ingudeari minutu eta erdian.

Gibelean utzi zituen txapelketan parte hartu zuten bertze hiru kirolari bizkaitarrak. Iñigo Aurreoetxeak 82 jasoaldi egin zituen, Unai Ardeok 80 eta Aitor de la Concepcionek 73. laz azpitxapeladun izan zen Urrutia.

## EMAKUMEZKOETAN ARIZTEGITARRAK

Emakumezkoen txapelketan 10 kiloko ingudearekin aritu ziren la-

nean, minutu eta erdi-koxandan. laz egin zen lehen aldiz txapelketa hau eta Maika Ariztegi iturendarra suertatu zen txapeladun 91 jasoaldirekin. Aurten ere bertze hainbertze egin zituen, baina ez zen aski izan txapela irabazteko, Dima bertako Haizea Ziarrastak 92 egin baitzuten. Karmele Gisasola bizkaitarra hirugarren izan zen 86 jasoaldirekin, Mertxe Ariztegi itu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lehen aldiz suertatu da Euskadiko txapeladun Urrutia.

rendarra laugarren, 84 jasoaldirekin eta Araba-

ko Naiara Ferran bosgarren 83rekin.

ERREMONTA → ANSA II.RREKIN BIKOTE EGINEZ EKAINAREN 27KO FINALEAN

# Promozio txapelketa ere irabazi du Aritz Zubiri goizueta

40-39 irabazi zieten Segurola eta Larrañagari

## TTIPI-TTAPA

Martxoan promesas txapelketa irabazi zuen Aritz Zubiri goizueta, Otaegirekin bikote eginez. Hiru hilabete beranduago profesional mailako bigarren txapela jantzi du, Ansa II.aren batera Promozio txapelketako final bikainean Segurola eta Larrañagari 40-39 irabazita.

Adituen erranetan, aspaldiko finalik onena izan zen. Lau finalistek emozioa, kalitatea, tantu bikainak eta gogorra izan zen final bikaina jokatatu zuten eta txalo zaparrada batekin agurtu zituzten.



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Txapeldunordeak eta txapeldunak, finalaren ondotik sariak jaso eta gero.

## TXAPELDUNAK POZIK

Erran beharrik ez da pozez gainezka zeudela bi txapeldunak. Aritz Zubiri goizueta zen txapelketako pilotaririk beterranoena, 28 urte-

rekin, eta azken bost urteetan egindako lanaren emaitza jaso du aurtentzen, hiru hilabetez bigarren txapela jantzita. «Oso partida gogorra izan da, bero egiten zu-

en, piloteo handia izan da eta berdindua joan da. Sufritzen jakin izan dugu eta garaipena izan da saria. Sufritu ondotik garaipenak gozokoak izaten dira».

FUTBOLA → LIZARRAKO IZARRA BIGARREN B MAILARA IGO DELA BALIATUZ

# Hirugarren mailara igo da ezustean Baztan Futbol Taldea

## TTIPI-TTAPA

Denboraldi bikain baten ondotik, Nafarroako Preferente mailatik heldu den urtean sortuko den Maila Autonomikora igotzea lortu zuen Baztan Futbol Taldeak. Baina Izarra taldea hirugarren mailatik bigarren B mailara igo dela baliatuz, Lizarrako taldeak utzi duen tokia hartuko du Baztango taldeak. Karanbolaz izan bada ere, ederki ospatu dute taldekideek goiera.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Baztan Futbol Taldeko jokalariek, entrenatzaileak eta jarraitzaileak kontent igoerarekin.

## FLASH

### Indurain

#### Fundazioak beka

Miguel Indurain Fundazioak beka eman dizkie Nafarroako 116 kirolariari, iaz lortutako emaitzen truke. Irati Otxoteko txirrindulari-lesakarrak 1.400 euroko laguntza izanen du, iaz Espainiako txapelketan bigarren izan ondotik. Adur Etxezarreta aresoarrak 3.150 euro jasoko ditu, Espainiako ski txapelketan bigarren izan eta gero eta Itxaso Fagoagak 1.050 euro eskuratuko ditu, tiro olinpikoko Munduko txapelketan parte hartu zuelako.

### Xanti Utergak

#### Gipuzkoako Kopa

Xanti Utergak Agirrezabalarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiarren Saria-VI Erremonte kopa irabazi zuen, ekainaren 28an Bergaran jokatutako finalean Zeberio II eta Ioni 36-40 irabazita.

### Aimar Olaizola

#### azpitxapeldun

Aimar Olaizola goizuetarrak ezin izan zuen buruz buruko bere bosgarren txapela jantzi. Ekainaren 28an Bilbon jokatutako final bikainean 19-22 galdu du Mikel Urrutikoetxearekin. 10-19 galtzen joan ondotik 19na berdindu zuen goizuetarrak baina ezin izan zuen finala irauli.

### Elizondon herri

#### kirol txapelketak

Elizondoko besten baitan, Euskadiko arpana txapelketa eta Nafarroako lokotx biltze txapelketa erabakiko dira uztailaren 26an, 19:00-etatik aitzinera. Hurrengoan emanen dugu berri zabalago.

## uztailak 9 - uztailak 23

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Ikuskizunak



LESAKA | 2015.07.10

**Korrontzi&Dantzaire taldearen emanaldia**

Musikari eta dantzarien bat egitetik sortu den ikuskizun bereziaz gozatzeko aukera izanen da Lesakako Plaza Zaharrean 23:00etatik aurrera.

## Bertsolaritza



ELIZONDO | 2015.07.25

**Santiotako bertso jaialdi berezia larunbatean**

Herriko plazan, bestetako ekitaldien barne, 23:30ean Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Alaia Martin kantuan entzuteko aukera izanen da.

## Azokak



SARA | 2015.07.18-19

**Kukuso eta zaharkinen III. azoka**

Zaharkinak, liburuak, kolekzioak... Plaza eta kiroldegian jarriko dituzten 300 erakusmahai ingurutan denetarik aurkitu ahal da. Sarrera urrik da.

## Zinema

BAZTAN

**Udako zinema herriz herri**

**Uztailaren 13an** *Zipi Zape eta kanikaren kluba* pelikula ikusgai Anizen.

**Uztailaren 20an.** *Perez gure sagutxo hori* pelikula ikusgai Leka-rozen.

## Bertsolaritza

ITUREN

**Bertso bazkaria**

**Uztailaren 20an** Ander Lizarralde eta Iban Urdangarinek.

ELIZONDO

**Santiotako jaialdi berezia**

**Uztailaren 25ean** 23:30ean plazan. Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Alaia Martinek.

ARANO

**Bertso-saioa**

**Uztailaren 25ean** 17:30ean Julio Soto, Sebastian Lizaso, Jone Uria, Sustrai Colina.

## Dantzak

LESAKA

**Korrontzi&Dantzaire taldearen emanaldia**

**Uztailaren 10ean** 23:00etan Plaza Zaharrean.

## Bestak

LESAKA

**Sanferminak**

**Uztailaren 6tik 11ra.** Xehetasunak 641.alean.

ITUREN

**Herriko bestak**

**Uztailaren 17tik 21era.** Xehetasunak gehigarrian.

## Erakusketak

BERA

**'Argi jokoak'****Uztailaren 18tik abuztuaren 16ra**

Oaia Peruarenaren margo erakusketa, Berako Kultur Etxean.

SENPERE

**Ttitto Aguerren lanak Larraldean ikusgai**

**Uztailaren 4tik 26ra** Ttitto Aguerre zizelkari autodidaktak erakusketa berria aurkeztuko du Larraldean.

ERRATZU

**'hAMAR, aitari'****Uztaila eta abuztuaren**

Diana Iniestaren oleo pinturen erakusketa ikusgai, uztailean bere tailerrean eta abuztuaren Erratzuko lixutegian.

SARA

**'Larrungo koloreak'****Uztailaren 21etik 31ra**

Sarako margolari elkartearen margo eta eskultura lanak ikusgai egonen dira Lur berri gelan, 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:30era.

## Ikastaroak

ELIZONDO

**Tokiko elikadura eta nekazaritza ekologikoa****Irailaren 3tik 4ra**

Baztango udalak eta Nafarroako unibertsitate Publikoak elkarlanean antolatu dute 15 orduko ikastaroa. Dohainik da.

## Kontzertuak

LESAKA

**Rock kontzertuak Plaza Zaharrean****Uztailaren 10ean**

01:00etan Kalera eta Estu ta larri herriko taldeen kontzertuak.

**Uztailaren 11n**

22:00etan Anai-Arrebak, Patxuko Nixe eta Brot taldeen kontzertua.

SARA

**Saiberri taldearen kontzertua**

**Uztailaren 23an.** Sarako taldeak kantaldia eskainiko du Elizan 21:30ean. Sarrerak 5 euro helduek, urrik 14 urtetik beheitikoe.

SENPERE

**Landarbaso abesbatzaren emanaldia**

**Abuztuaren 7an.** Senpereko elizan 19:30ean.

## Ospakizunak

ELIZONDO

**Baztandarren biltzarra**

**Uztailaren 19an.** Goizean hasita, artisau erakusketa, orga desfilea, mutildantzak, herri bazkaria, dantzaldia eta gauzez eta ordu tikiak arte DJak.

## PROPOSAMENA

ELIZONDO

**Baztandarren Biltzarra uztailaren 19an**

Elizondoko karririk baztandarren bilgune izanen dira bertze urte batez. Egun osoko besta izanen da: 10:00etan artisauak, 11:00etan orgen desfilea, 14:00etan mutil dantzak plazan, 14:30ean bazkaria Merkatuko zelaian eta bazkalondoan animazioa, 18:00 dantzaldia Trikidantzekin, 20:00etan Oharkabe eta 01:00ean DJak.



ELIZONDO

**Santioak**

**Uztailaren 24tik 28ra.**  
Xehetasunak gehigarrian.

ARANO

**Santioak**

**Uztailaren 19, 24, 25 eta 26an.** Xehetasunak 32. orrialdean.

SENPERE

**Amozko bestak**

**Uztailaren 10etik 14ra.**

ELGORRIAGA

**Santioak**

**Uztailaren 23tik 26ra.**  
Xehetasunak gehigarrian.

**Azokak**

ETXALAR

**Larunbateroko azoka**

**Herriko plazan,**  
09:00etatik aitzinera bertako produktuen azoka.

SARA

**Kukuso eta zaharkinen III. merkatua**

**Uztailaren 18 eta 19an,** herriko plazan eta kiroldegian, egun osoz.

ITUREN

**Artisau eta Lanbideen azoka**

**Uztailaren 12an,**  
Mendaur trikitixa taldekoek girotuko dute.

**Mendi irteerak**

URDAZUBI

**Bisita gidatuak ortzegunero**

Uztailaren 16tik aurrera, ortzegunero eta 19:00etatik hasita, Urdazubiko ingurugiroa eta altxor ekologikoak ezagutzeko aukera Juan Goñi naturalistaren gidaritzapean.

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Ehiztariaren isilaldia

**LUIS GARDE**

Pamiela, 2015

**E**zkaba, 1938ko maiatzaren 22a. Preso matxinatu talde batek Iruñea ondoko San Kristobal Gotorlekuko ateak ireki ditu. Ihes jendetsua giza ehiza baten hasiera izanen da. Bi iheslari askatasunaren bila dabilta inguruko haranetan baina. Donemartie, gaur egun. Hedapen urriko poeman idazle batek Ezkabako ihesaldiari buruzko nobela bat hastea erabaki du. Bildutako agiriak eta lekukotasunak aztertu bitartean, bere memoriarekin bakarka geratu da. Memoria historikoa bere historiaren memoria bilakatuko da. Norberaren oroimena ere jazarle iruzurgilea delako.

**Musika**



Zure aurrekari penalak

**ANARI**

Bidehuts, 2015

**Z**ure aurrekari penalak (Bidehuts), Anariaren musika ibilbideko bosgarren diskoa da. Azken diskoa argitaratu zuenetik sei urte igaro ondoren kaleratu du lana. Beste eremu batzuetako hitz eta esaldietara jo du, batzuetan ironiaz, lan berriko bederatzi kantuen hitzak idazterakoan. Anari Alberdirekin batera, Borja Iglesiasek (gitarra), Xabier Olazabal Drake-k (baxua), Mariano Hurtadok (pianoa eta teklatuak) eta Mikel Txopeitak (bateria) osatzen dute egun Anari taldea eta kolaborazioak ere izan ditu. Andoaingo (Gipuzkoa) Garate estudioan grabatu dute nagusiki diskoa Tolosako Bonberenea (Gipuzkoa) etxean grabatutako zati batzuk izan ezik, iazko abenduan hasita aurtengo apirila bitarte.

**Internet**



Emakume adituen biltoki digitala

**WWW.GABILTA.EUS**

**E**makume adituen biltoki izan eta euren lana zabaltzeko sortu dute Gabilta, atari digitala. Besteak beste, emakume aditu eta arituen kontaktuak, albisteentzako txokoa eta dokumentazio esparrua jasoko ditu atariak. Generoari buruz plazaratutako txostenak, eztabaidak eta hizkera sexistak saihesteko gidak ere jarriko dituzte eskuragarri. Agenda atala ere badu eta bertan, komunikazio parekidearekin lotutako informazioa bilduko dute. Euskal Herri osoko 115 emakumeren informazioa bildu dute oraingo eta zerrenda osatzen joanen dira. Sare sozial baten eran, erabiltzaileek euren elikatu ahalko dute Gabilta datu basea, izena emanda. Emakume bakoitzari buruz eginiko ikusentzunezkoak, idatziak, proiektuak edota elkarriketak igotzeko tartea eskainiko du webguneak; baita aditu berriak proposatu eta haien kontaktuak txertatzeko aukera ere.

**Nire aukera**



**Maxi GEREKA**  
Iturengo gaztea

**«1950eko argazkiak ematen dio nik egindako bestetako kartelari punttua»**

**D**enboraldi bat Irlandan lanean eta ingelese ikasten ibili ondotik, hegazkina hartu eta udako bestak gozatzen hasia da iturendar gaztea. Herriko bestak ere atezoka ditu. Aurten, V. kartel lehiaketan irabazlea izan da, «argazki batekin egin nahi nuen eta duela bizpahiru urte Iturengo palazioko Javierrek argitaratutako liburutik atera nuen azkenean. Autore-eskubideak eskatuko dizkit igual» erran digu irrika. Errekaondoa etxea, egun ez dagoena, frontisa zaharkituta, jendea dantzan... 1950 inguruko argazki horrek eman dio «puntua» irabazlearen ustez. Bestetan bezpera da «politena», «nahiz eta egun motxena izan, 20:00etan baita txupinazoa, gogotsu hasten ditugulako». Lehen gaua nahiago bazuen ere, orain, «lehiaketek herrian paratzen duten saltsa, eguneko giro herriko hori» gustatzen zaio. Aurten lan egitea tokatzen zaio, baina «ahal den guztian parte hartuz» eta ajeari aurre egiteko «ohatzera joan aurretik bokata on bat jenez eta biharamonean edaten segituz» bestetaz gozatuko du.

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**ORONAZ-MUGAIRI.** Pisuua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalera eta 60 m<sup>2</sup>ko baje-erekin. Etxe moblez-tatua, berogailua, igo-gailua eta trastelekua-ekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainu-gela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai, bajera 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**  
- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurra behar ditugu.

**URDAZUBI**  
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**  
- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

**DONEZTEBE.** Parrokia Karrikan pisua salgai. 3 logela, komuna, sukaldia-jantokia, 2 trasteleku. Duela gutti zaharberritua. ☎948 450384.

**BERA.** Herri erdian pisua salgai, 3 logela, sukaldia, jantokia, 3 ar-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

mairu enpotratu, 2 komun, trastelekua eta garajeko marrarekin. Igo-gailu eta berogailuarekin. ☎600 645720.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**ETXALAR.** Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bis-ta zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



**ORONAZ-MUGAIRI.** Pisu berria errentan emateko. Sukaldia-egongela, logela bat,

komuna eta trastelekua. 300 euro alokairua edo 73.000 eurotan salgai. ☎663 312557.

**DONEZTEBE.** Duplexa errentan emateko. Sukaldia, egongela, komuna eta 2 logela. 300 eurotan. Pisuua estrena-tzeko dago. ☎674 847735.



**IRUÑEA.** Pisuua errentan emateko. 4 logela, bainugela, sukaldia, jangela. Unibertsitate-tik 5 minutura. ☎686 611142.

**LESAKA.** Guztiz mobleztatua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko, 1 edo 2 lagunentzako apropo-

sa. Zonalde polita eta lasaia. ☎658 943702.



**IRUÑEA.** Ikasleentzat pisua errentan eman nahi da. 3 logela ditu eta logelak banaka errentan hartzeko aukera ere badago. Unibertsitate publikotik 5 minutura. Baztandarra naiz. ☎620 209663.

**IRUÑEA.** Pisuua errentan eman nahi da, Paulino Caballero kalean. 3 logela ditu eta moblez-tatua dago. Oso argitsuua. Unibertsitate-tik 5 minutura. ☎647 992350.

**LANDAK.** Etxe bat errentan eman nahi da Landetan aste baterako, abuztuaren 8tik

15era. Leku lasaia. Hondartzatik 10 kilometro-tara. Mimizan inguru-an. ☎665 752724/948 625415.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

**BERA.** Berako bikote gazte batek Beran pisu bat errentan hartu nahi du. ☎686 589282.

**LESAKA edo inguruan** pisua edo etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎647 233690.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**BERA.** Etxebizitza bifamiliarrak eraikitzeko prest dauden partzela urbanizatuak salgai. Deitu 18:00etatik aitzinera. ☎618 963226.

**ZERBITZUAK**  
zurgindegiak

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gorritibaita - ARANTZA

**LANA**  
eskariak

**Berako neska euskalduna** uztailaren abuztuan umeak zaintzeko prest dago. ☎661 100323.

29 urteko **mutil bertarra edozein lanetan** aritzeko prest, frantse-

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(ekainaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 36 €

**Zerri gizena**  
1,259 € kilo. (+0,039)

**Zerramak:**  
0,440 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,86 (-0,03)  
**1.koa** 3,63 (-0,03)  
**2.koa** 3,47 (-0,03)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,17 (-0,03)  
**1.koa** 3,91 (-0,03)  
**2.koa** 3,74 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 168,00  
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00  
idixkoak 180,00  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberrak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 6,10/6,70  
8-10 kilokoak: 5,70/5,90



sez badaki. Gidatzeko karnetarekin. ☎634 963977

**Lesaka eta inguruan** emakumea eskaintzen da etxeak garbitu edo adineko eta haurrak zaintzeko. ☎647 233690.

**LANA**

**eskaintzak**

**IGANTZI.** Uda honetarako zerbitzariak, sukaldariak eta kamioi-gidariak behar dira Irrisarrilanden. Bidali curriculum-a: [administracion@irrisarriland.es](mailto:administracion@irrisarriland.es).

Lesakako Oreka nutrizio eta dietetika-belardendan **dendaria behar da**, astean 2-3 arratsaldez lanean aritzeko. ☎948 637373.

Etxalarko ileapaindegi batean **ileapaintzaile ofiziala** eta **estetika dakiena** behar da. Berehala lanean hasteko. ☎948 635237

**BERA.** Estetizista laguntzailea behar da. ☎661 432630.

**URDAZUBI.** Ikaburua jatetxean ontziak garbitzeko pertsona bat behar da. 12:00etatik 16:00etara, igande eta jai egunean. ☎948 599222.

**URDAZUBI.** Ikaburua jatetxean sukaldaria behar da udan ordezkapen bat egiteko. Eguerdiko zerbitzurako. ☎948 599222.

**URDAZUBI.** Ikaburua jatetxean frantses pika bat dakien zerbitzaria behar da 12:00etatik 16:00etara lan egiteko, uztaila eta abuztuan eta jai-egunetan ☎948 599222.

**MOTORRAK**

**salgai**

**Golf V gt tdi** autoa salgai. Egoera arras one-



an. 140 zaldi. 12.000 euro. ☎699 375558.

**Peugeot 307 XR1.6** autoa salgai. 110 zaldi, 3 ate, klima eta itv-ea pasatuta berria. 68.500 km. 3.200 euro. ☎686 733349 (watsapp bidez ere bai)



**MOTORRAK**

**tailerrak**



**DENETARIK**

**salerosketak**

**DONEZTEBE.** Egurra salgai, haritza. 40 euro/tn, serrerian. ☎948 456010

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramantzen da. ☎676 242520.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



**Batzango losa gorria** salgai. Zabalera: 30 cm;

luzera: 30-70 cm; loditasuna: 2,5-3 cm. Oso-tara: 125 m<sup>2</sup>. Prezioa: 25€/m<sup>2</sup>. ☎626 644420 / 605 878202.



100 akazia pikete salgai 250 eurotan. Kontakua telefonoz, ☎630 472 447



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

**Regrosadora** 45 cc.koa, **zerra** 80 cc.koa, **zepilladora konbinatu zirkularra** eta **taladroa** 40 cc.koa, **tupi bat** 50 cc.koa **ejearekin** eta **katezko taladroa**. ☎636 214080.



**ETXALARKO UDALA**

**HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA**

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena:** 5 urte, luzagarria.
- **Hileko errenta:** 365,00 euro + BEZ. Hau izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketa baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza:** 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza pleguan adierazten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2015/08/05eko 14:00 arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta udalaren web orrian ([www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus))

Etxalar, 2015eko ekainaren 18an  
Alkatea, Miguel M<sup>o</sup> Irigoien Sanzberro

**TTIPI-TTAPAK kazetaria behar du ordezkapenatarako**


**Eskatzen da:**

- Kazetaritza edo euskal ikasketak izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila

**Kontuan hartuko da:**

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- QuarkXPress programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

**Bidali curriculum-a** [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera **uztailaren 23a baino lehen.**



hemen  
**agertu**  
nahi duzu?

egin zure erosketa  
**erran.eus** en

**IRAGARKIA**

2 aldizkaritan eta interneten

**8**  
EURO

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Uztailaren 3an Labaiengo **MARIA TELLETXEA ITURRALDEK** 15 urte bete ditu. Zorionak eta egun on bat pasa dezazula famili eta lagun artean.



Leitzako **NAROA** eta **UXUE MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK** 8 eta 6 urte betetzen dituzte uztailaren 4 eta 13 an. Askio maite zaituztegu!!!Muxu haundi bana!!



**KIRIKO** eta **JUANA MARIK**, uztailaren 14an, 25 urte ezkondurik egiten dituzte. Zorionak eta besarkada beroak etxeko eta bereziki zuen biloba Ugaitzen partetik. Bazkari goxo baten zain gelditzen gara!




Lakuntzako **ARTZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** uztailaren 27an 6 urte bete ditu. Egun zoriontsua pasa eta besarkada bat Lesakako familien partez.



Lakuntzako **MADDI SAN SEBASTIAN ARRAIZAK**, abuztuaren 13an 11 urte eginen ditu. Egun zoriontsua pasa eta besarkada bat Lesakako familien partez.



**EUSTAKIO LEGAZKUEK**, Agerrako alkate eta ondoko bil-tzaileak, 66 urte bete ditu uztailaren 2an. Zorionak eta ongi pasa!



Berako **ALAIN ENDARA RODRIGEZEK** 3 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak Aita, ama eta arreba Nahia eta Berako familieren partetik



**IRENE PETRIRENAK** 33 urte bete ditu uztailaren 12an, zorionak atta eta Enaitzen partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK** 10 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak eta ongi pasa eguna. Hamar muxu amatxi eta aitatxiren partetik.



**PELLO APEZTEGIA ZUBIRI** jaunari, Etxalarko apaizari, eta Sunbilla-Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLARI** zorionak ekainaren 29ko partez, zuen santua zelakoz. Pello, desiatzen dizugu laister sendatzea, Alizia eta familieren partetik.



Amatz **NIEVESEK** uztailaren 6an urteak bete ditu. Auniz urtez familia guztiaren eta bereziki Ainara, Amaia, Estixu, Mattin, Nerea eta Zuhaitzen partetik! Auniz maite zaitugu Amatz!!!!




**ASIER OLAIZOLA** eta **MIKEL GOÑIRI**, ekainaren 27an Erratzun jokaturako pilota partida galdu izanagatik ere Zorionak! Eta mila esker argazkiagatik. Eta Aimarri ere zorionak Bilbon jokaturako partidagatik. Alizia Olaizola eta bere seme Pabloren partetik.



Elkoko (Nevada, USA) **MITCHELL OWLSLEY YGOAK** 17 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familieren partetik!



**ENEIT ELIZALDE BERTIZ** aranztarak 2 urte beteko ditu uztailaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat gurasoen partetik.



Arantzako **ENEIT ELIZALDE BERTIZEK** urteak beteko ditu uztailaren 18an. Zorionak Labaien eta Iturengo familieren partetik.



Donamariako **URKO REKARTEK** 8 urte beteko ditu uztailaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta Oiertxoren partez. Segi horrela txapeldun!!!



Sunbilla-Urdazubiko **PATXI PETRIRENA PEREZ** eta Elizondoko **ESTI SARRATEA ETXEBERRIRI** zorionak auniz uztailaren 1ean ezkontzeagatik. Bihotz bihotzetik Urdazubiko Alizia Olaizolaren partetik.



**ANTTON IPARRAGUIRRE** ITURZAETAK urteak bete zituen uztailaren 2an. Auniz urtez pirulero gure bertsolaria. Muxu haundi haundie etxeko partez!!!!



hemen agertu nahi duzu?

argazki soila

4

EURO

argazki bikoitza

8

EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak zuri!!!

egin zure erosketa

erran.eus en



**Olaia Bazar**  
Leitza  
%10, 30€tik gora



**FISIOETXEA** Leitza  
%10, 10 saioko bonoan



**ARRATE EÑETIKA ZENTROA**  
Doneztebe  
%10 Skeyndor kremetan



**LEITZA KIROLAK** Leitza  
%5, 30€tik gora



**OGI BERRI** Leitza  
ARTESANOS PANADEROS  
%5 gozotegian, 25€tik gora



**IRRISARRI LAND** Igantzi  
%50 sarreran etab.



**BIXKIAK** Lesaka  
%10



**ETXE TRESNAK S.L.** Leitza  
%10 koltxoietan etab.



**IPARLA** Elizondo  
kirolak  
%8, 30€tik gora



**ZORTZIKO** Leitza  
%5 gozotegian, 30€tik gora



**ARGAZKIAK GOIKO** Bera  
%10 kopia digitaletan



**IPINGI** Elizondo  
%10, 30€tik gora



**MASTER ALTZURI** Lesaka  
%5 etxetresnetan




**KIROLAK ZELA** Bera  
%5 kirol artikuluetan



**Alustiza** Doneztebe  
%10, 30€tik gora



**FOTO MENA** Elizondo  
%10 kopia digitaletan



**KULUNKA** Leitza  
%5, 30€tik gora



**BORTZIRUDI** Bera  
%5 kopietan etab.



**KATTAGORRIA** Lesaka  
%10 lentzerian



**KAPRITXO** Leitza  
%10, 30€tik gora



**ZALDUA** Donez/Eliz  
%10 produktuetan



**KATEA-BIKE** Bera  
%5 konponketetan



**POTTOKI** Elizondo  
%5 opari txikietan



**MARI CRUZ** Donez/Eliz  
LENTZERIA  
%10, 30€tik gora



**Ostargi optika** Bera  
%5 produktu guztietan



**DATUCELAY** Elizondo  
%10 bateria etab.



**HERNANDORENA** Leitza  
%5, 30€tik gora



**GAZTELU SOL** Leitza  
%15 osagarrietan



**NAFARPRESS** Elizondo  
liburudenda  
%10 liburu eta materialean



**INTZURI OPTIKA** Lesaka  
%5 produktu guztietan



**SANSIÑENA** Elizondo  
%5 olio aldaketan



**ARIZTELA** Leitza  
%5, 30€tik gora



**ELBETEKO POSADA** Elbete  
%10 kartan 30€tik gora



**MAIMUR** Leitza  
%10 oparietan



**MENDAUUR** Doneztebe  
Nekazari Zerbitzuak  
Vicente Arcena Andueza  
%5 pentsu batzuetan



**Semper** Bera/Lesaka  
%10 matrikulan



**GARBI** Leitza  
%10, 30€tik gora



**UDAL KIROLDEG.** Lesaka  
%40 matrikulan



**OREKA** Lesaka  
%5 kontsultan etab.



**JAIONE** Doneztebe  
%10, 12€tik gora



**KUKUKA** Doneztebe  
%10 pijama etab.



**EDR GUNEA** Leitza  
%5, 30€tik gora




**URDI BERA** Bera  
%20 urteko matrikulan



**KIMETZ** Doneztebe  
Belardenda  
%5 kosmetikan etab.



**OSTIZ** Doneztebe  
%10 oinetakoetan



**J.J. PIKABEA** Doneztebe  
%10, marka batzuetan



**AMAIA** Doneztebe  
%5 kosmetikan etab.



**AGARA** Bera  
%5 kirol artikuluetan



**ELIKA** Bera  
Dietetika eta elikadura  
%5 kontsultan



**TXINELKA** Lesaka  
ZAPATADENDA  
%10

ttipi txartelarekin  
beti irabazten da!

**ZOZKETAK**

641. ALEKO  
IRABAZLEAK:

**ttipi txartela**

Miren IPARRAGIRRE HUALDE

72673111-B

epemuga  
04/2016

Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:

**TTIPI-TTAPA**

koskontako bidea 7 LESAKA

T 948 635 458 | F. 948 635 457

info@ttipi.eus

erran.eus

**Kamiseta bat | BUATXABAL**  
**Kontxi Agerre | ALMANDOZ**  
**2 liburu | EREIN Argitaletxea**  
"Lauviaren giltza" | Juan M<sup>a</sup> Elizalde | ERATSUN  
"Apokalipsia guztioi erakutsia" | Maite Oteiza | IRURITA  
**Bikote kartak | KATXIPORRETA**  
**Asier Iturralde | SUNBILLA**  
**2 sarrera | IRRISARRI LAND**  
**Aritz Zubillaga | LEITZA**  
**2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
**Juanjo Irazoki | BERA**  
**Martiko lotea | MARTIKO**  
**Alizia Arregi | ELIZONDO**

**KAMISETA BAT**  
Onddo ta punto  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**DESKONTUAK**

**IPARLA**  
kirolak

ELIZONDO | %8, 30€tik gora

**Zaldúa**  
argazkilariak

DONEZTEBE/ELIZONDO  
%10, produktuetan

**elika** Dietetika  
eta elikadura

BERA | %5, kontsultan

**Aritzela**  
DEKORAZIO TAILERRA

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan  
%10, 50€tik gorako erosketetan

**Garbi**  
drogeria - lurrindegia

LEITZA | %10, 30€tik gorako erosketetan

**bixkiak**

LESAKA | %10



2 SARRERA  
Donostiako Aquariuma  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



2 LIBURU | Ttartalo argitaletxea  
"Ozeanoa" | "Ingurumarian"  
[www.ttartalo.eus](http://www.ttartalo.eus)

2 SARRERA  
Sorginen Lezeak  
[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



2 SARRERA  
Lesakako Udal Kiroldegia  
[www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com](http://www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com)



**Lanku**



2 PRODUKTU SORTA  
Lanku  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)